



XXI. MENDERAKO LIBURUTEGI-ZERBITZUAK

Herritar, erabiltzaile eta adituen iritzia EAEko liburutegi publikoetako zerbitzuen orainaren eta etorkizunaren inguruan

Aurkibidea

Sarrera	4
EAEko biztanleen eta liburutegien arteko harremana	5
Liburutegien erabiltzaileen profila	6
Erabiltzaile ez direnak	8
Zergatik joaten dira herritarrak liburutegietara?	14
Zertara joaten dira herritarrak liburutegietara?.....	16
Liburutegiaren irudia	19
Erabiltzaileen eta adituen balorazioa	19
Liburutegi publikoen funtzioak edo zereginak	22
Liburutegien etorkizuneko balioak	24
Xede-biztanleak	26
Etorkizunari begira	30
Aukerak eta mehatxuak	30
Liburutegien lehentasunezko helburuak	32
Etorkizuneko ikuspegia	35
Etorriko diren aldaketak	38
Liburutegietako zerbitzuak gaur egun eta etorkizunean	42
Interneteko zerbitzuak	46
Zerbitzu berriak	48
Liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	52
Liburutegiak eta hezkuntza.....	56
Liburutegi publikoak eta euskal kultura	59
Erakundeen zeregina	61
Erabiltzaileak, liburutegien aktibo nagusia	66
Ondorioak	68
Metodologia	78

Sarrera

XXI. mendeko liburutegi-zerbitzuei buruzko ikerketa hau 2012ko apirilean Eusko Jaurlaritzak onartutako Irakurri Konektatzeko irakurketa-planaren barruan martxan jarritako ekimenetako bat da. Helburua irakurketa-zerbitzu publikoak datozen urteetan garatzeko hainbat orientabide ematea da. Horiek erakunde-arduradunentzat eta liburutegietako profesionalentzat baliagarriak izan beharko dute, testuinguru teknologiko berrira egokituta eta herritarren eskakizunak aintzat hartuta liburutegi-zerbitzuen etorkizunari aurre egin diezaioten.

Informazioaren teknologiak garatu eta gizartean ezarri izanaren ondorioz, funtsezko aldaketak gertatu dira azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren esparruetan.



Interneteko zerbitzuak gero eta orokortuago daude; hori dela eta, informazio-ekosistema berri bat sortzen ari da: bertan mota guztietako hainbat eduki eskura litezke erraz eta azkar, sarerako konexioa duen edozein lekutatik.

Informazioa euskarri fisikoan aurkezten da oraindik ere (paper, disko trinko eta bestelakoetan); kasu askotan, gainera, hodeian ere gordetzen da informazio hori bera, eta hainbat gailuren bidez zuzenean kontsumitu. Badirudi liburu elektronikoa hurrengo urteetan sendotu egingo dela, eta liburutegi publikoak hura beren zerbitzuetan integratzeko modua bilatzen ari dira.

Bestalde, gero eta ugariagoak eta zuzenagoak dira erabiltzaileekin komunikatzeko bideak, bai eta liburutegi-zerbitzuak hedatzeko eremuak ere. Webak eta sare sozialek bi norabideko komunikazioa ezartzeko aukera ematen dute,

muga geografikoak eta ekipamenduen ohiko mugak gaindituz. Horrela, lineako zerbitzuak emateko egoitza birtual osagarriak sortzeko beharra nagusitzen ari da.

Bai aurrez aurreko zerbitzuen bidez, bai zerbitzu birtualen bidez, garrantzitsuena, liburutegientzat, herritarren beharrak, eskakizunak eta itxaropenak asetzea da. Gaur egun, informazioa eta jakintza –eta, ondorioz, biak bereganatzeko ezinbestekoa den irakurketakuntzarako dira garapen pertsonal eta kolektiborako.

Premisa horiek oinarri hartuta, ikerketa bat egin dugu, EAEko liburutegietako zerbitzuen egungo egoera eta etorkizuneko joerak ezagutzeko. Horretarako, herritarren eta adituen iritzia jaso ditugu teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak eta gizarte-ikerketarekin lotutakoak erabili dituen azterketa batean.

Horiek horrela, txosten honek bi oinarri ditu: bateko, 13 urte nahiz gehiagoko EAEko 2.050 biztanleri egindako inkestak, eta, besteko, liburutegi, hezkuntza eta kulturaren kudeaketaren alorreko 30 profesionalen osatutako aditu-taldearen iritzia. Inkestari erantzun dioten herritarren erdiak EAEko liburutegien erabiltzaileak dira; beste erdiek, ostera, ez dituzte liburutegiak erabiltzen egun edo ez dituzte inoiz erabili. Guztiei honako galdera hauek egin dizkiegu: gaur egun liburutegiekiko duten harremanaren inguruko iritzia, zertarako erabiltzen dituzten (erabiltzen badituzte), liburutegiei buruzko iritzia eta balorazioa, beren itxaropenak eta eskakizunak, eta etorkizunean beren ustez liburutegiek izan beharreko lehentasunak.

EAEko biztanleen eta liburutegien arteko harremana

13 urte edo gehiagoko biztanleei egingako inkestatik lortutako datuen arabera, heren bat baino apur bat gehiago (% 35,3) EAEko liburutegi bateko **bazkide dira**. Bestalde, ia laurden batek (% 22,7) azken urtean **liburutegira** behin gutxienez **joan dela** adierazi du. Ikerketa honetan, maiztasun hori hartu dugu herritarrek liburutegien «erabiltzailatzat» jotzeko muga-balio moduan. Liburutegira joan diren pertsonak eta Internet bidezko liburutegi-zerbitzuren bat erabili dutenak (% 6,7) gehitzen baditugu, ikusiko dugu erabiltzaileen % 29,4 osatu zutela 2012an, EAEko 13 urte edo gehiagoko herritarren taldearen barruan.

Inkestari erantzun diotenek garrantzi handia eman diote liburutegiak erabiltzeari, hots, 6,8 puntuko batez besteko balorazioa 0tik 10era bitarteko eskalan. **Zerbitzu edo jarduera kultural edo prestakuntzako**en (ez akademikoak) **inguruko interesari** dago-kionez, «hizkuntza-prestakuntza» eta

«prestakuntza digitala» nahiko garrantzitsutzat jo dituzte (8,3 eta 7,5 puntu, hurrenez hurren). Oro har, hala ere, proposamenei emandako batez besteko balioak oso antzekoak dira: «museoetara joatea» 6,9; «liburutegietara joatea» 6,8; «kontzertuetara joatea» 6,7; «zinemara joatea» 6,6; «antzerkira joatea» 6,6; «musika-prestakuntza» 6,5; «erakusketa-aretoetara edo arte-galerietara joatea» 6,4. Puntuazio baxuagoa lortu duen aukera bakarra «bertsolaritza-jardueretara joatea edo praktikatzea» da, 5,0 punturekin.

Era berean, ez dago alde adierazgarri-rik adin, sexu edo bizilekuen arabera. Hauteman daitekeenez, emakumeek garrantzi handiagoa ematen diete jarduera guztiei, eta gazteek, aldiz, hizkuntza-prestakuntza, prestakuntza digitala eta kontzertuetara joatea gehiago baloratzen dituzte.

Liburutegiak fisikoki bisitatu dituzten ia erabiltzaile guztiek (% 94,4) **liburute-**

gi publiko batera joan direla adierazi dute. Agerian uzten du horrek zer-nolako garrantzia duen zerbitzuak. 13 eta 16 urte bitarteko nerabeen heren bat baino ez da eskola-liburutegira joaten. Bigarren hezkuntzan eskola-liburutegiak duen ahultasuna erakutsi lezake horrek, edota nerabeen pertzepzioa, ez baitute liburutegi gisa identifikatzen. Eta, aldi berean, liburutegi publikoak ikasleentzat ezinbestekoak direla islatzen du: bitik hiruk beren herriko liburutegi publikoa besterik ez dute erabiltzen, ikasteko nahiz kultura- edo aisialdi-interesetarako; eta laurden bat liburutegi publikoaz aparte eskola-liburutegira ere joaten da.

Antzeko zerbait esan daiteke unibertsitate-liburutegiaz, baina oso bestelako maila batean: 17 eta 24 urte bitarteko erabiltzaileen erdiak liburutegi publiko-
ra baino ez dira joaten, baina horietatik guztiak ez dira goi mailako ikasketak egiten ari.

Liburutegien erabiltzaileen profila

Haxe da EAEko liburutegien erabiltzaileen profil arruntena: emakume gaztea, tamaina ertaineko herri edo hiri batean bizi dena, goi edo bigarren mailako ikasketak dituen eta ikasten edo lanean ari dena.

Izan ere, **emakumeen** proportzioa handiagoa da erabiltzaile zein bazkideen artean; liburutegietara maizago joaten dira, eta irakurtze-indize altuagoak dituzte, oro har. Era berean, gizonak baino gehiago baloratzen dute liburutegietara joatea edo bestelako jarduera kulturalak egitea, eta erabiltzaile gisa motibazio handiagoa dute. Motibazio horren barruan, diferentziak oso handiak dira: norbait liburutegira laguntzea edo bertan norbaitekin egotea (adibidez, ume, senide edo lagun bat) jardueren kasuan, eta, gainera, liburutegiko zerbitzu ia guztiak gizonak baino gehiago erabiltzen dituzte. Edonola ere, sexuen arteko diferentziak,

oro har, ez dira oso handiak, eta badira adierazi beharreko salbuespen batzuk: indizeek behera egiten dute adineko emakumeen artean eta etxean soilik lan egiten dutenen artean.

Liburutegiaren erabilera **adinarekin** estuki lotuta dago: gazteen artean hedatuago dago, eta behera egiten du erabiltzaileen adinak gora egin ahala. Nolanahi ere, 44 urtera arte, indizeak batezbestekotik gora mantentzen dira.

Halaber, esanguratsua da 3.000 biztanletik gorako herri eta hirietako (hiriburuak ez direnak) erabiltzaileen ehunekoak herri txikienetakoa eta hiru hiriburuetakoa bikoiztea, nahiz eta hiru

hiriburuetan, bazkideen ehunekoak batezbestekotik zertxobait gorago egon.

Adinarekin gertatzen den moduan, aldeak handiak dira erabiltzaileen lanbideari dagokionez: gehien erabiltzen dituztenak ikasleak dira, eta indize txikiena, berriz, erretiratuen artean aurkitzen dugu. Gauza bera gertatzen da ikasketa-mailaren kasuan: goi-mailako ikasketak dituztenen erabilera-maila lehen hezkuntzako ikasketak dituztenena halako bi da.

Logikoki, irakurtzen duten herritarrak askoz gehiago joaten dira liburutegietara irakurtzen ez dutenak baino. Eta bertaratze-indize hori, era berean, handiagoa da ikasketekin edo lanbidearekin lotutako liburuak irakurtzen dituztenen artean aisialdi moduan soilik irakurtzen dutenen artean baino. **Baina irakur-**

keta-ohituren eta bertaratzearen arteko harremanak xehetasun asko ditu:

- hamar irakurletik zazpik, gutxi gorabehera, ez dituzte liburutegiak erabiltzen;
- irakurtzen ez duten bost pertsonatik batek (% 21,4) liburutegi publiko

bateko bazkide-txartela du;

- eta irakurtzen ez dutenen % 17k azken urtean liburutegira joan direla adierazi dute.

Liburutegien erabiltzaileak, gainera, aktiboagoak dira eta garrantzi handiagoa ematen diete kultura- eta prestakuntza-jarduerari, batez ere nor-

beraren partaidetza aktiboa eskatzen duten horiei.

Azkenik, liburutegien erabiltzaileak, egun, **aurrez aurreko erabiltzaileak** dira, liburutegietara joan eta aurrez aurreko zerbitzuak erabiltzen dituzte. Zerbitzu birtualen erabilera sortze-bidean dago oraindik, edo beharbada, oraindik ez du interes handirik piztu herritarren artean, alde batera utzita aurrez aurreko zerbitzuekin lotutakoak, online katalogoak kasu. EAEko liburutegien erabiltzaileen hiru laurdenek Interneteko liburutegi-zerbitzuak erabiltzen ez dituztela adierazi dute, eta erabiltzen dutela esan dutenek, berriz, oso noizean behin egiten dute.

EAEko liburutegien erabiltzaileak eta bazkideak (ehunekoak)

	Erabiltzaileak	Erabiltzaile ez direnak	Bazkideak	Bazkide ez direnak
Guztira	22,7	77,3	35,3	64,7
Emakumeak	24,1	76,0	41,6	58,4
Gizonak	21,3	78,6	29,1	70,9
13 eta 16 urte bitartekoak	62,3	37,6	65,3	34,7
17 eta 24 urte bitartekoak	46,1	53,8	51,9	48,1
25 eta 34 urte bitartekoak	28,9	71,1	45,0	55,0
35 eta 44 urte bitartekoak	29,1	70,9	43,5	56,5
45 urte eta zaharragoak	12,5	87,5	25,1	74,9
3.000 biztanle baino gutxiago	14,3	85,7	24,0	76,0
3.000 eta 20.000 biztanle artean	28,2	71,8	39,5	60,5
20.000 biztanletik aurrera	28,0	72,0	33,1	66,9
Hiriburuak	15,6	84,3	36,0	64,0

Oinarria: 13 urte eta gehiagoko EAEko biztanleak. Erabiltzailea: azken hamabi hilabeteotan liburutegira gutxienez behin joan den pertsona. Bazkidea: liburutegiko bazkide-txartela duen pertsona.

Erabiltzaile ez direnak

13 urte edo gehiagoko EAEko populazioaren ia bi herenek (% 64,7) ez dute liburutegi-txartelik. Eta % 77,3 ez dira liburutegira joan azken urtean.

Liburutegiko bazkide izatearen eta erabiltzaile izatearen arteko zerikusia estua bada ere, ez da erabakigarria. txartela dutenen artean, bost pertsonatik bat (% 20,9) ez da liburutegira joan azken urtean; aldiz, liburutegi batera joan direnen % 15,7k ez dute bazkide-txartelik.

Erabiltzaile ez direnen artean, gizonak gehiago dira, eta, halaber, proportzio handiagoan aurki ditzakegu 45 urtetik gorakoak, udalerrri txiki eta hiriburuko erabiltzaileak, hezkuntza maila txikia dutenak eta erretiratuak eta etxean soilik lan egiten dutenak. Aldeok murriztu egiten dira Interneteko liburutegi-zerbitzuak erabiltzen ez dituztenen talde zabalean (% 88,1, eta diferentziak oso txikiak dira aldagai batetik bestera).

Zure ustez, zein da zure burua ondoen definitzen duen baieztapena? (ehunekoak)

	1. Liburutegia guztixitan erabiltzen dut	2. Lehen liburutegira joaten nintzen: orain, ordea, ez	3. Inoiz ez dut liburutegia erabili
Guztira	% 9,6	% 45,6	% 44,7
Emakumeak	% 11,5	% 45,7	% 42,8
Gizonak	% 7,9	% 45,5	% 46,4
13tik 16ra	% 22,8	% 28,7	% 48,5
17tik 24ra	% 20,8	% 49,0	% 29,7
25etik 34ra	% 11,2	% 63,1	% 25,1
35etik 44ra	% 12,4	% 53,7	% 33,9
45 eta gorakoak	% 7,1	% 39,3	% 53,6
3.000 biztanle baino gutxiago	% 9,0	% 51,6	% 39,4
3.000 eta 20.000 biztanle artean	% 8,4	% 48,1	% 43,0
20.000tik aurrera	% 8,4	% 37,6	% 54,0
Hiriburuak	% 11,4	% 48,2	% 40,4

Oinarria: liburutegiak erabiltzen ez dituzten 13 urte eta gehiagoko EAEko biztanleak.

Egun liburutegietara joaten ez diren biztanleen erdia **lehen** joan egiten ziren, (% 45,6) edo oraindik ere oso noizbehinka joaten dira (% 9,6); gainerakoek (% 44,7), aldiz, ez dituzte **inoiz** liburutegiak erabili.

Beren burua oso noizbehinkako erabiltzaile gisa hartzen dutenen kasuan, emakumeak gizonak baino gehiago dira; horretaz aparte, 13 eta 24 urte bitarteko nerabeen eta gazteen bostena baino apur bat gehiago sartzen dira bertan, eta hamar heldutik bat, gutxi

gorabehera. Kontuan izan behar dugu ikasleen laurdena inguruk liburutegiak gutxitan erabiltzen dituela adierazi duela.

Egun liburutegiak erabiltzen ez dituzten baino lehen erabiltzen zituzten biztanleen taldea handia da, eta emakumeak nahiz gizonak aurki ditzakegu hor. Bizilekuak eragindako diferentziak oso txikiak dira. Talde horretan, ehuneko handienak adin aktiboan dauden 25 eta 44 urte bitarteko helduengan antzeman ditugu -hamar


pertsonatik sei, gutxi gorabehera-, bai eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean ere, neurri handi batean.

Egia esanda, asko dira lehen liburutegiak erabiltzen zituzten baina orain ez dituzten herritarrak. Horren arrazoiak horien gaur egungo bizi-baldintzak izan litezke (lana, seme-alabak...), edota zerbitzuaren inguruko interesa galdu izana, hezkuntza-aldiarekin soilik lotzen zutelako.

45 urte eta gehiagoko helduen, erretiratu eta etxean soilik lan egiten duten emakumeen erdia ez da inoiz liburutegi batera joan. Era berean, erabiltzaile ez diren 13 eta 16 urteko nerabeen erdiak ez dira inoiz liburutegi batera joan, eta gainerakoak oso gutxitan joan dira. Datuok deigarriak dira benetan.

Zalantzarik gabe, liburutegien inguruko itxurazko interesik eza ulertzeko funtsezko alderdietako bat **informazio-falta** da. Liburutegirik erabiltzen ez duten herritarren artean, % 67,4k dio ez duela nahikoa informazio edo ez duela

Zer nolako informazioa jasotzen duzu zure herriko liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan? (ehunekoak)



Oinarria: liburutegiak erabiltzen ez dituzten EAEko biztanleak, guztira.

inolako informaziorik bere herriko liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan. Aldiz, herritarren ia heren batek (% 32,2) liburutegiaren eskaintzaren inguruko informazio nahikoa edo ugari duela uste du.


Informazio-falta horren inguruan, taldeen arteko diferentziak ez dira oso nabarmenak. Nolanahi ere, honako talde hauek eman diote balorazio txikiena informazioaren kalitateari: gizonak, adin handiagoko helduek, 20.000 biztanletik gorako hirietan (baina ez hiriburuetan)

bizi direnek, eta, batez ere, hezkuntz-maila txikia dutenek eta erretiratuek.

Ikerketa honetan parte hartu duten adituek ere informazio-falta hartu dute euskaldun askok liburutegiak ez erabiltzearen kausa nagusi gisa. Profesionalok, edonola ere, interesgarriak diren hainbat xehetasun aipatu dituzte: liburutegien inguruko ezjakintasuna dago; herritarrek horiei buruzko **informazio okerra** edo irudi zaharkitua dute, eta beste garai batekoak edo interesgarriak ez diren liburu eta kultura inprimatuarekin identifika-tzen dituzte; ikasleentzat bakarrik balio duten zerbitzu bezala hartzen dituzte.

Hori liburutegien irudi bazter-tzailea da: ikasleei bakarrik zuzendutako gune gisa hartzen dute, eguneratu gabeko liburuak eta zerbitzu gutxi,

Liburutegietara ez joateko arrazoiak. (erantzun bat baino gehiago, ehunekoak)



Oinarria: liburutegiak erabiltzen ez dituzten EAEko biztanleak, guztira.

«... eskaintzen dituzten kalitateko zerbitzu ugarien inguruko ezjakintasuna dago. Herritarrek, oro har, liburuen maileguarekin soilik lotzen dute liburutegi publikoa, eta, zehazki, liburu zaharrek, hau da, eguneratuak ez daudenekin edo interesgarriak ez direnekin».

ikuskeran horren jatorria lehenagoko garaietan dago, liburutegi-sarea eskasa eta zaharkitua zenean. Dena den, adituek ere uste dute ez dela nahikoa egin ikusmolde oker hori aldatzeko.

Liburutegiak zergatik erabiltzen ez dituzten galdetuta, herritarrek bi arrazoi nagusi aipatu dituzte: ohiturarik ez izatea eta denborarik ez izatea. Izan ere, erabiltzaile ez direnen heren batek baino apur bat gehiagok kausa horiek adierazi ditu. Horien atzetik beste bi kausa nabarmentzen dira, osagarriak izan litezkeenak. Batzuek beren

zorrotz eta araez betetakoak eskaintzen dituen, eta abar. Zerbaiten ustez,

etxeetan irakurri edo ikastea nahiagoa dute, eta besteek, berriz, beste era batzuetan eskuratzen dituzte liburuak eta bestelako materialak.

Liburutegietara joateko ohiturarik ez dutenen artean presentzia handiagoa dute gizonek, tamaina erdiko herrietako biztanleek (3.000 eta 20.000 herritar bitartekoek), erretiratuek eta hezkuntza maila txikia duten pertsonak. Aldiz, nerabeen eta goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen proportzioa oso eskasa da. Askok, bestalde, denbora-falta dela-eta liburutegira ez direla joaten adierazi dute; talde horretan, emakumeen, 35 eta 44 urte bitarteko helduen eta aktibo edo lanean dauden pertsonen proportzioak dira nagusi. Aitzitik, nerabeek eta gazteek, bai eta ikasleek eta erretiratuek ere, apenas aipatu dute

arrazoi hori.

Etxean irakurri eta ikasteko aukera nerabe eta gazte ikasleen artean hautematen da batik bat, sexuen arteko diferentziarik gabe. Gazteentzat, oro har, liburutegia ikasteko gune bat da. Hala, 13-16 eta 17-24 urte bitarteko nerabeei galdetu diegunean zergatik ez diren liburutegietara joaten, etxean irakurtzea edo ikastea nahiago dutela erantzun dute gehienek.

Zerrendako gainerako arrazoen ehunekoak oso txikiak dira, garrantzi gabekoak ia-ia batzuetan. Oro har hartuta, eskaintza urria aipatzen dute (ez du liburutegirik ezagutzen, ez daki non dauden liburutegiak edo ez dauka liburutegirik bere etxetik gertu), eskaintza desagokia dela argudiatu dute (girona, instalazioak, ordutegia, eskaintza teknologikoa, zerbitzu interesgarriak...) eta gutxi batzuek Interneta ere aipatu dute.

Liburutegietara ez joateko arrazoiei helduz, batzuek beren burua justifikatu dute («ez dut denborarik», «ez dut ohiturarik», eta abar). Adituak, oster,

liburutegiarekin berarekin lotutako

faktoreak identifikatzen saiatu dira, eta beraz, alderdi horiek aztertu eta etorkizunean alda litezke.

Sektore zabaletan, liburutegien inguruko ezjakintasuna dago edo liburutegien irudia zaharkitua da. Adituen iritziz, horren atzean dauden arrazoi nagusiak liburutegiak erabiltzeko interesik eta tradizioz eza daude, bai eta irakurtze- edo kultura-ohituren ahultasuna ere. Horien ondorioz, populazioak urrun sumatzen du liburutegia:

«Kulturala da, ez dago tradizioz, ez da euskal gizartean errotuta dagoen ohitura. Euskadin, liburutegiak duela denbora gutxi ezarri ziren».

«Ez dago liburutegi-tradizio handirik, garrantzitsuenak espezializatuak ziren eta oso selektiboak (ikerketara zuzendutakoak, ez zeuden aisialdiko irakurketarekin lotuta...). Herrietan, gainera, ez ziren 80ko hamarkadara arte agertu, eta eskolako haurren munduarekin eta ikasteko gunearen irudiarekin lotuegi zeuden».

Antza denez, Euskadiko liburutegi-sarearen modernizazioa beranduegi egin zen, eta beharrezko sustapen eta ikusgarritasunik gabe:

«Gizarteak, 'elite' kulturek eta komunikabideek garrantzi eta estatus kultural handiagoa ematen diete kulturaren hedapenarekin zuzenean lotutako ekitaldi eta ekintzei (jaialdiak, estreinaldiak, artistak, etab.), herritarrentzako ekipamendu eta zerbitzu publikoei baino».

Baina beste batzuk askoz kritikoagoak dira. Horien ustez, liburutegiak ez dira batere erakargarriak herritarrentzat barnealdera begiratzen dutelako, ez dituzte herritarren beharrak aintzat hartzen:

«Liburutegiak beren baitan ixten dira eta ez dituzte herritarren beharrak aintzat hartzen».

«Zorrotzeiak dira eta ez dira batere erakargarriak, eta ez datoz bat ez garaiarekin ez eta kultura-kontsumoarekin».

Ildo beretik, zenbait adituk diote liburutegien eskaintza desegokia dela, batez ere gazteak bezalako biztanle-taldeen kasuan:

«... gazteen ikuspegitik (30-35 urtera artekoak, gutxienez), liburutegiak ez dira gune dinamikoak, ez dituzte informatzeko, aisialdiaz gozatzeko eta komunikatzeko erabiltzen dituzten bitartekoekin erlazionatzen ezta ikasteko gune gisa ikusten».

Beste batzuen aburuz, liburutegien eskaintza ez dator bat testuinguruarekin, ez zaizkie herritarren benetako beharrei egokitzen.

Zergatik joaten dira herritarrak liburutegietara?

EAEko biztanleentzat, aisialdiarekin lotutako arrazoiak dira liburutegietara joateko justifikazio nagusiak. Ondoren –antzeko balorazioekin– datoz ikastea edo prestatzea, gai zehatzen inguruko informazioa jasotzea, edo, oro har, informazioa bilatzea.

Liburutegietara joateko arrazoiak

(0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa; 0 garrantzirik gabekoa, 10 oso garrantzitsua)



Tradizionalki, horiek izan dira liburutegi publikoen oinarrizko funtzioak, hots, aisialdia, prestakuntza eta informazioa. Eta ikerketa honetan, hiruok antzeko batez besteko balorazioa jaso dute 0tik 10era bitarteko eskalan, batez ere puntuaziorik altuenak eman dizkieten herritarren artean. Edonola ere, kontuan hartu behar dugu liburutegietara joateko arrazoiak ez dela bat bakarra, eta zerbitzu bat baino gehiago erabiltzeko hurbiltzen direla herritarrak horietara. Aurrekoetan ez bezala, ikerketa honetan **aisialdi eta denbora librearekin** lotutako arrazoiak jaso dute batez besteko baloraziorik altuena (7,1). Beharbada liburutegien erabiltzaileen artean, aisialdia arrazoi nagusitzat hartzen duten helduen taldeak sendotu egin dire-

Oinarria: liburutegiak erabiltzen dituzten EAEko biztanleak, guztira.

lako (25 eta 44 urte bitarteko helduek 7,3 puntuko batez besteko balorazioa eman diete, eta 45 urtetik aurrerakoek, berriz, 8,4).

Logikoa den bezala, nerabeek eta gazteek eman dizkiete puntuaziorik **altuenak ikastearekin eta trebatzearekin** lotutako arrazoiei. Nolanahi ere, heldu gazteentzat (25 eta 44 urte bitartekoak) motibazio garrantzitsua izaten jarraitzen du, hamarretik seik puntuaziorik altuenak eman baitizkiote (10, 9 eta 8 puntu). 45 urte edo gehiago dituzten helduentzat ere hala da: 4,9 puntuko batez besteko balorazioa eman diote prestakuntza-arrazoiak direla-eta liburutegira joateari, eta hamarretik ia lauk (% 38,8) nahiko garrantzitsua dela uste dute (10, 9 eta 8 puntu).

Gai zehatz baten inguruko **informazioa jasotzeko** helburuarekin liburutegira joateari dagokionez, erabiltzaileek antzeko moduan balioztatu dute, adina, sexua edo bizilekua gorabehera.

Bestalde, inkestatutakoen laurdenarentzat norbait **liburutegira laguntzea** edo bertan norbaitekin egotea arrazoi garrantzitsuak dira (% 25,9k 8, 9 eta 10 puntu eman diote). Talde horretan, emakumeen kopuruak gizonena nabarmen gainditzen du, eta, era berean, seme-alaba txikiak izateko adinean dauden heldu gehiago daude. Amaitzeko, **arrazoi profesionalen** batez besteko balorazioa ez da 5 puntura iristen, ezta biztanleria aktiboaren adin-tartean (17-44 urte bitartean) ere. Hala ere, motibazio garrantzitsua da adin-tarte horretako erabiltzaileen laurdenarentzat. Bizilekuak ez du inolako eraginik horretan.



Zertara joaten dira herritarrak liburutegietara?

EAEko biztanleei liburutegietan erabiltzen dituzten zerbitzuen edo egiten dituzten jardueren inguruan galdetu diegunean, liburuen mailegua nabarmendu dute. Horixe da, hain zuzen, erabiltzaile gehien dituen zerbitzua eta maizen baliatzen dena. Hamar erabiltzailetik ia seik (% 57,7) liburu-mailegua erabiltzen dute beti edo ia beti liburutegietara joaten direnean; % 12,4k bakarrik adierazi dute inoiz ere ez edo oso gutxitan baliatzen dutela.

Zerbitzuen erabilera
(batezbestekoa, 0tik –inoiz ere ez– 10era –beti– bitarteko eskalan)



Otik (inoiz ez) 10era (beti) bitarteko eskalan, liburutegietako mailegu-zerbitzuaren erabileraren maiztasunak 7,1 puntuko balorazioa jaso du, batez beste. Batez besteko puntuazio hori ikerketak proposatutako gainerako zerbitzuen gainetik dago argi eta garbi, bai erabiltzaile guztiei dagokienez baita sexuaren eta udalerraren tamainaren araberako profilei dagokienez ere.

Ikasteak liburuen mailegua gainditzten duen biztanle-talde bakarra 24 urtetik beheragoko nerabe eta gazteena da. Oro har begiratuta, **informazioa bilatzea** edo aurki-

Oinarria: liburutegiak erabiltzen dituzten EAEko biztanleak, guztira.

tzea maizen egiten den bigarren jarduera da. Erabiltzaileen profil batetik bestera, desberdintasunak oso txikiak dira.

Zerbitzuen erabilera-maiztasunaren azterketatik lortu ditugun jarduerak ez dira inola ere baztertzailak. Liburutegietara joaten direnean, erabiltzaileek zerbitzu bat baino gehiago erabiltzen dute normalean. **Jarduera anizkoi-tza** gazteen artean da bereziki garrantzitsua, eta zenbat eta gazteagoak izan inkestari erantzun diotenak, orduen eta murriztagoa da. Izan ere, biztanle-taldeen erabilera-parametroak ez dira oso bestelakoak 35 urtera arte, nahiz eta alderdi zehatz batzuetan desberdintasunak egon.

Nerabeak, gazteak eta heldu gazteak dira ikasteko helburuarekin liburutegia gehien erabiltzen dutenak, beren materialak zein bertakoak baliatuta. Horrez gain, beste jarduera batzuetan ere buru dira, hala nola informazioa bila-

tzen, ordenagailuak eta gailu mugikorrek erabiltzen, Interneten nabigatzea, dokumentuak erreproduzitzea, musika entzutea eta filmak ikusten. Azken jarduera horien maiztasuna, alabaina, nabarmen txikiagoa da.

Erabiltzaileak zenbat eta zaharrago, orduan eta jarduera-indizea txikiago. 35 urtetik aurrera, liburu-maileguaren maiztasunak erabiltzaile-kopuru handienak dituzten gainerako jarduerena bikoizten du. Hala, maiztasun txikienak ez dira ikasteko aukeran bakarrik erregistratu, baizik eta honako hauetan ere: ordenagailuak eta wifia erabiltzen, Interneten nabigatzen, liburutegiko bilduma erabiltzen eta dokumentuak erreproduzitzen. Ia zerbitzu guztietan, emakumeak gizonak baino aktiboagoak dira. Emakumeek maizago hartzen dituzte liburuak eta multimedia-materialak maileguan. Gainera, partaidetza handiagoa dute ikastaroetan eta kultura nahiz irakurtzea sustatzeko ikastaro,

jarduera, talde eta abarretan. Azkenik, gehiagotan laguntzen dituzte desgaitasunen bat duten haurrak nahiz beste pertsonak liburutegira edo haiekin egoten dira bertan. Gizonak, bestetik, sarriago irakurtzen dituzte egunkariak, eta, agian, ordenagailuak eta gailu mugikorrek gehiagotan erabili ere bai.

Liburutegiek programatutako **jarduera kulturalak edo irakurtzea sustatzekoek** neurrizko eragina dute EAEko 13 urte eta gehiagoko erabiltzaileen artean: heren batera iristen da apenas azken urtean erakusketa, aurkezpen, solasaldi, ipuin-kontaketa, ikastaro, tailer, antzezpen, egileekin egindako hizketaldi eta abarretara joan direnen proportzioa.

EAEko lau erabiltzailetatik batek bakarrik (% 24,2) erabiltzen ditu **liburutegiek Interneten eskaintzen dituzten zerbitzuak**. Horren barruan, gehienek lineako katalogoan kontsultak egiten dituzte (% 72,8); ondoren datoz liburu-

tegiko kudeaketak, adibidez, maileguak berritzea edo erreserbak egitea. Bi kasutan, liburutegietako zerbitzu tradizional eta aurrez aurrekoak eskaintzeko eta erabiltzeko modua osatu eta berritu egiten dute lineako zerbitzu horiek.

Gainerako Interneteko zerbitzuen erabilera-indizeak askoz txikiagoak dira: hamarretik batek bakarrik erabiltzen ditu alerta-zerbitzuak (berritasunak, gomendioak...) edo kontsultatzen du liburutegiaren eta haren zerbitzuen inguruko informazioa Interneten. Ondoren, % 10 baino proportzio txikiagoan, honako jarduera hauek daude: ekin-tzen agenda kontsultatzea (% 6,6), entziklopedia digital edo datu baseetara jotzea (% 5,2), liburutegiak sortutako tokiko informazioa kontsultatzea (% 2,5); audioliburuak, irudiak, liburu elektronikoa eta bestelakoak deskarga-

tzea (% 2,2), eta Liburuklik Euskal Liburutegi Digitalean (% 1,3) eta «Galdetu: liburutegiek erantzungo dute» zerbitzuan kontsultak egitea (% 1,4). Azkenik, erabiltzaile horietako % 3,8k bakarrik erabiltzen dituzte gizarte-komunikazio tresnak (posta elektronikoa, Facebook eta Twitter kasu) liburutegiarekin harremanetan jartzeko.




Liburutegiaren irudia

Erabiltzaileen eta adituen balorazioa

Liburutegiak erabiltzen dituzten 13 urte eta gehiagoko EAEko biztanleek **nahiko ondo baloratu dute normalean erabiltzen duten liburutegia**: 7,7 puntu, batez beste, 0tik 10era bitarteko eskalan.

Erabiltzaileen % 1,4k bakarrik eman diote «gutxiegi» nota (0 eta 4 bitarteko balioak) eta % 59,0k, berriz, balorazio altua edo oso altua (8, 9 eta 10 puntu). Gainera, profil batetik bestera, batez besteko balorazioa ia berdin mantentzen da. Hona hemen aldaketa bakarrak: emakumeen eta 45 urte eta gehiagoko balorazioa positiboxeagoa da, eta 17 eta 24 urte bitarteko gazteena, ostera, kritikoxeagoa.

Oro har, esan dezakegu liburutegiak



Oinarria: liburutegiak erabiltzen dituzten EAEko biztanleak, guztira.


ondo baloratuta daudela, ikerketa honetako alderdi zehatz gehienengoruko gogobetetze-maila altua baita.

Hiru dira ongien baloratutako alderdiak, 8 puntu edo gehiagorekin, batez bes-

te: horietatik bi elementu fisikoei nahiz azpiegiturakoei buruzkoak dira (eraikinararen **kokalekua eta irisgarritasuna** eta **instalazioen erosotasuna**). Hirugarrena EAEko liburutegi-sarearen akti-

bo garrantzitsuenetako bati buruzkoa da, zerbitzuko **langileen arreta eta profesionaltasuna**, alegia. Aldiz, musika, film, dokumental eta abarren bildumak jaso du balorazio baxuena.

Normalean erabiltzen duen liburutegiaren alderdi zehatzen balorazioa
(batez besteko balorazioa, 0 eta 10 artean)



Oinarria: liburutegiak erabiltzen dituzten EAEko biztanleak, guztira.

Nabarmendu beharra dago baloraziook adostasun handia lortu dutela ikertutako profil guztietan. Horietan, balorazio orokorrean bezala, emakumeek puntuazio altuagoak eman dituzte; baxuenak, aldiz, 17 eta 24 urte bitarteko gazteenak dira. Aintzat hartu behar dugu, halaber, balorazio baxuena jaso

duten alderdiak ikus-entzunezko bilduma, erabilera publikoko ekipamendu teknologikoa eta Internet bidezko zerbitzuak direla, eta, guztietan, baloraziorik eman ez duten inkestatuen kopurua handia izan dela. Horiek «Ez daki / Ez du erantzuten» aukeran ageri dira.

Era berean, bereziki deigarria da erabiltzaileek emandako balorazioaren eta aditu-taldean parte hartutako profesionalen iritziaren arteko bat-etortze maila altua, EAEko liburutegi publikoen indarguneak identifikatu eta baloratzeko orduan. Horrek bion ikuspegiak sendotzen ditu.

Balorazioen kasuan, erabiltzaileek zerrenda itxi bateko alderdi bakoitzari puntuazio bat eman behar zioten. Aditu-taldearen kasuan, ostera, balorazio-elementuak galdetegi irekian euren emandako erantzunekin osatutako zerrendatik atera genituen. Hori dela eta, interesgarriak diren xehetasunak (profesionalen konpromisoa zerbitzuarekiko, erabiltzaileenganako elkarrekin soziala, online katalogo kolektiboa...) nahiz alderdi berriak lortu ditugu (irakurtzea sustatzeko egindako lana, sare-lanerako jardunbide jakin batzuk...).

Iturria: aditu-taldea.

EAEko liburutegi publikoen **indarguneak** (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Liburutegi-sare zabala, eta egoitzak udalerrri eta auzo gehienetan	8,6	% 83,3
Inplikazio handiko profesionalen taldea	8,3	% 70,0
Online katalogo kolektiboa eta zabala	8,0	% 60,0
Elkarreragin sozial handia eta erabiltzaileen gogobetetze-maila nahiko altua	8,0	% 63,3
Sare-lanarekin lotutako jardunbide egokiak esparru batzuetan, adibidez, liburutegien arteko maileguan	7,8	% 60,0
Instalazio modernoak eta leku egokietan kokatuak	7,5	% 50,0
Bilduma zabalak eta eguneratuak	7,5	% 44,8
Irakurtzea bultzatzeko lan ona	7,4	% 53,3

Aditu-taldeak, halaber, EAEko liburutegi publikoek egun dituzten ahultasun nagusiak identifikatu eta baloratu behar izan zituen.

Adituen artean, liburutegien esparruko langileak kritikoagoak izan dira ahultasunen garrantzia baloratzean, hala nola liburutegien erakunde-ain-

tzatespen urria, giza baliabide eskasak zerbitzu nagusietan edo liburutegietako profesionalen trebakuntza-gabezia.

EAEko liburutegi publikoen **ahulguneak** (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Administrazioek eta arduradun politikoek aintzatespen txikia ematen diote liburutegien zereginari. Hori dela eta, liburutegi-politika eskasa da, eta ez du epe ertain eta luzerako plangintzarik.	8,6	% 80,0
Liburutegiak oso gutxitan aritzen dira elkarlanean bestelako tokiko erakunde eta entitateekin (hezkuntzakoak, kulturalak, sektorialak...).	8,4	% 80,0
Liburutegiek proiektzio eskasa dute gizartean.	8,1	% 66,7
Sareko giza baliabideak eta baliabide teknikoak urriak dira, eta horrek beharrezko lidergoa eta plangintza izatea galarazten du.	8,0	% 56,7
Eskainitako zerbitzuen eta herritarren benetako beharren arteko bat-etortze maila txikia da	7,9	% 60,0
Langileek trebakuntza eskasa dute, euskal unibertsitateetan sektorearekin lotutako ikasketarik ez dagoelako, neurri handi batean.	7,3	% 40,0

Iturria: aditu-taldea

Liburutegi publikoen funtzioak edo zereginak

Tradizionalki, informazioa, heziketa eta kultura izan dira liburutegi publikoetako zerbitzuen ardatz nagusiak. Aditu-taldeari liburutegien funtzio edo zeregin orokorrrak zein ziren zehazteko eskatu genien. Ondoren, horiek gaur egun duten eta etorkizunean izango duten garrantzia baloratu behar izan zuten.

Taldeko ia partaide guztiek **heziketa-funtzioa** nabarmendu dute, eta etorkizunean egun duena baino askoz garrantzi handiagoa izango duela iritzi diote. Funtzio horren barruan, hainbat alderdi bereizi dituzte (eta guztiek gero eta garrantzi handiagoa izango dutela adierazi dute):

- hezkuntza ez-formala bultzatzea;
- liburutegia, adin guztietan etengabe prestatzeko eta ikasteko gunea;
- informazio-alfabetatzea eta alfabetatze digitala;
- elkarlanean aritzea eskola-liburutegiekin eta ikastetxeekin.

Informazio-funtzioa, eskuarki, «informazioa eta jakintza eskuratzea» bezala definitzen dugu. Zeregin garrantzitsua du egun, eta etorkizunean ere hala izaten jarraituko du. Aipatutako proposamenen artean, etorkizunean honako hauek pisu handia izango dutela baieztatu dute adituek:

- informazio aukeratua eta kalitatekoa, eta erabiltzaileei orientabideak ematea beharrezkoa denean;
- informazio orokorra eta batez ere, tokiko komunitateari buruzkoa;
- informazioa eskuragarri jartzea, «euskarria eta formatua edozein

direla», barne hartuta formatu bereziak eta arruntak ez direnak;

- informazioa aurrez aurre nahiz Internet bidez eskuratu ahal izatea.

Kultura eskuratzea, gizabanakoen eta biztanleria-taldeen garapen kulturala, liburutegia **aisialdi eta denbora libreko** baliabide-zentrotzat jotzen duen ikuspegiarekin osatu eta batu beharra dago. Hartara, arreta berezia jarri behar da funtzio horren berdintasun-eta birbanatze-izaeran, bai eta sustatzen dituen aukera-berdintasunean eta kultura arteko kohesioan ere. Tradizionalki, funtzio hori oso garrantzitsua izan da liburutegietan, eta kontsultatutako adituek diotenez, datozen urteetan ere hala izango da.

Parte-hartzaileek liburutegi publikoek **irakurketa bultzatzeko** egiten duten lana aitortu dute, eta gehienak

ados daude sustapen hori etorkizunean atxikitzearekin. Hortaz, liburutegiek hurrengoetan bildu behar dute arreta:

- irakurtze-ohiturak sortzea eta sendotzea, bai euskarri tradizionaletan bai ingurune digital berrietan;
- irakurtzeko euskarrien inguruko informazioa ematea, orientatzea eta horiek eskuratzea erraztea;
- irakurtzeko eta idazteko gaitasunak garatzea;
- liburutegiak irakurketa partekatze gune bihurtzea.

Era berean, adituek nabarmendu dute ondare kulturala (batez ere irakurtze-euskarrietan erregistratutakoa) **kontserbatzeko eta hedatzeko erakunde** gisa liburutegiek duten zeregina. Abiapuntutzat hartuta funtzio horrek betidanik izandako pisua, etorkizune-

ko ikuspegia desberdina izango da funtsezkotzat hartzen dugun alderdiaren arabera:

- pisu handiagoa izango du tokiko edukiak sortu, kontserbatu eta hedatzeko liburutegien eginkizunak, batak bat formatu digitalean dauden edukiei dagokienez.
- garrantzi txikiagoa emango zaio bildumak, material arraroak, balio-tsua eta antzinakoak kontserbatzeari, hau da, ondare bibliografikoa babesteari.

Taldeko adituen arabera, badago egun garrantzi txikiegia ematen diogun eta etorkizunean pisu handia izango duen funtzio bat: liburutegia **sozializatze eta elkartzeko gune** gisa. Liburutegia tokiko komunitatearekin zuzenean lotuta egongo da, eta hala, «desberdinak direnak biltzeko» foro eta plaza pu-

bliko moduan funtzionatu beharko du, «harreman-ekipamendu» moduan, «gizarte-kohesioa egituratzen duen zentro komunitario» moduan, eta hainbat belaunalditako herritarrei biltzeko eta gutxiengoei sozializatzeko aukera emango die.

Liburutegien etorkizuneko balioak

Tradizionalki, liburutegi publikoak balio demokratiko jakin batzuekin identifikatu izan dira, besteak beste, kultura eta informazioa eskuratzeko aukera-berdintasunarekin eta herritar ahulak eta gutxiengoak babestearekin.

Liburutegi publikoen irudia eta ikuspegia osatzeko, horien egungo balio edo balio tradizional zehatz batzuk identifikatzeko eskatu genien adituei, kontuan hartuta datozen urteetan liburutegiak herritarrentzako zerbitzu publiko eta kalitatekoak izateko bide eman behar luketela. Lehenengo galdetegi ireki horretan emandako erantzunak oinarri hartuta, jarraian ditugun balioak lortu eta profesionaleri horiek puntuatzeko eskatu genien:



Etorkizunerako proiektzioa duten EAEko liburutegi publikoen gaur egungo **balioak**
(0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa))

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Herritar guztiei informazioa, jakintza eta kultura eskuratzeko aukera ematen diete, inor baztertu gabe, doan eta modu askean. Horrela, aukera-berdintasuna bermatzen dute.	9,5	% 83,3
Informazioaren gizartean, informazioa eskaintzen dute, bitartekari- eta orientazio-lanak egiten dituzte, etab. Horretaz aparte, beharrezko informazio edo jakintza guztia antolatu eta herritarren esku jartzen dute, bitartekoak eta euskarriak gorabehera, eta merkataritza- eta ideologia-irizpideak alde batera utzita.	8,8	% 76,7
Herritarrak irakurleak diren aldetik, haiekin konprometitu daude, eta irakurtzeko eta idazteko haien ohiturak eta trebetasunak babesten dituzte, bai euskarri tradizionaletan bai gailu eta teknologia berrietan.	8,7	% 80,0
Udalerriko eskaintza kulturala, informatiboa eta prestakuntza ez-akademikoa ematen edo biltzen duten zerbitzu nagusia izatea, edota jarduera horietan parte hartzen duten eragile garrantzitsuenetako bat.	8,7	% 80,0
Tokiko eta komunitateko informazioa eskuratzeko ezinbesteko zerbitzuak izatea, eta tokikoa maila globalean integratzen laguntzen eta integrazioa bermatzea.	8,4	% 76,7
Ezinbesteko hezkuntza-erakundeak dira herritarrentzat, bizitzan zehar horien ikaskuntza-beharrak asetzen baitituzte. Herritar ororen informazio-alfabetatzean arreta berezia jartzen dute, eta laguntza baliagarria ematen diete ikasleei eta ikastetxeei.	8,4	% 70,0
Kulturak, hizkuntzak, gizarte-taldeak eta belaunaldi ezberdinak biltzeko, elkarrekin egoteko eta jakintza trukatzeko gizarte-eremuak dira.	8,4	% 76,7
Gutxiengoan, biztanleria-talde jakin edo ahulenen beharrei arreta berezia ematen diete, eta horiek gizarteratzen laguntzen dute.	8,3	% 70,0
Gizarte aurreratu eta garatuaren sinbolo dira, eta berrikuntza teknologikoaren eta zerbitzuen kudeaketa parte-hartzailearen aldeko apustu sendoa egin dute.	7,9	% 53,3

Iturria: aditu-taldea.

Xede-biztanleak

Kontsultatutako sektore guztiak oso ados daude «liburutegiak pertsona guztientzat dira» irizpidearekin. Haien arabera, printzipioa baliozkoa da egun, eta etorkizunean ere izango da.

Liburutegiak erabiltzen ez dituzten herritarrek 9,7 puntuko batez besteko balorazioa eman diote baieztapenari, 0tik 10era bitarteko eskalan. Eta talde horretan ere, % 85,3 erabat ados daude irizpidearekin, hots, 10 puntuko balorazioa eman diote. Proporzioa handiagoa da inkestatuen adina zenbat eta handiagoa izan.

Gainerako proposamenei dagokienez, inkesta egin dutenen erdiak baino gehiago ez daude batere ados (0 puntuarekin baloratu dute). Desadostasuna da nagusi, halaber, liburutegiak «ikasleentzat dira» (batez besteko balorazioa, 3,1) eta «haurrentzat eta gazteentzat dira» (2,8) baieztapenen kasuan. Biek nerabe eta gazte talde txiki batek emandako balorazioari esker lortu dute



Oinarria: liburutegiak erabiltzen ez dituzten 13 urte eta gehiagoko EAEko biztanleak.

puntuazio hori. «Liburutegiak baliabide ekonomiko gutxi dituzten pertsonentzat dira» edo «pertsona jantzi eta jakitunentzat dira» premisek puntuazio are baxuagoak lortu dituzte, 2,6 eta 2,0, hurrenez hurren.

Desadostasun-mailarik handiena etorkizunari begira egindako item honetan lortu da: «**gaur egun, liburutegiak ez dira beharrezkoak, dena Interneten**

dago». Kasu horretan, gazteenak ere ez daude ados (24 urtetik beheragoko lau parte-hartzaitetik hiruk 0 eta 4 puntu bitarteko puntuazioa eman diote), eta oro har begiratuta, 1,6 puntu lortu ditu batez beste, Otik 10era bitarteko eskalan.

Era berean, erabiltzaileen arteko **adostasuna** da nagusi liburutegien xede diren herritarrek zehazteko orduan ere.

Hori argi geratu da datozen urteetan liburutegietako zerbitzuen hartzaileak zein biztanle-talde izan behar liratekeen galdetu dugunean.

Profil ezberdineko lagunek adierazitako iritzien arteko diferentziak benetan txikiak dira, alde batera uzten badugu lehentasuneko aukera gisa nork bere taldea hautatzeko joera.


Bestalde, aditu gehienek **zerbitzuaren**

unibertsaltasuna

bermatu behar dela pentsatzen dute, egoitza edozein izanda ere. Askok, gainera, aditzera eman dute helburu hori erdies-teko, **Internet** eta egungo **teknologiak** oso lagungarriak izan litezkeela.

Halaber, hainbaten iritiz ezinbestekoa da pertsona guztiek

Liburutegietako lehentasuneko biztanle-taldeak datozen urteei begira
(erantzun bat baino gehiago, ehunekoak)



Oinarria: liburutegiak erabiltzen dituzten EAEko biztanleak, guztira.

«Teknologia berriek eta Internetek horretan hobetzen lagun lezakete. Bi baliabideoi esker, errazagoa izan liteke aldiriko tokietan edo herri txikietan bizi diren erabiltzaileei zerbitzua ematea. Gainera, baliabide ugari dituzten liburutegiek eskainiko duten zerbitzua beren eraginpeko eremuan dauden liburutegi txikiagoek emango dutenaren osagarri izan beharko da».

osagarriak diren zerbitzuak ezartzea ere iradoki dute.

Edonola ere, badira «leku guztietan nahikoa baliabide dituen liburutegi bat ezartzeko» aukera zalantzan jartzen dutenak, edo zerbitzu mugikorak edo liburutegien zabalkundearekin lotutakoak proposatzen dituztenak.

Zerbitzuak horiengana bideratze aldera, liburutegiek datozen urteetan lehen-tasuneko erabiltzaile gisa hartu behar lituzketen biztanle-taldeak zehazteko eskatu genien adituei, eta gehienek **haurrak, nerabeak eta gazteak** agerian utzi dituzte. Horien ustez, oso garrantzitsua da taldeon etorkizuneko proiektzioa, eta horren ildotik, adin batetik aurrera liburutegira joateari uzteko arriskua nabarmendu dute, batik bat derrigorrezko hezkuntza amaitu on-

oinarrizko zerbitzu-eskaintza baliatu ahal izatea, gutxienez ere. Eta beste batzuek hiri- edo eskualde-sareetako liburutegietan elkarren

doren goi mailako ikasketarik egiten ez dituzten gazteen artean.

Aditu gehienek uste dute, halaber, biztanle-**talde ahulenei** arreta berezia eman behar zaiela –langabe eta immigranteei adibidez– eta, oro har, hezkuntza-esparru ofizialetik kanpoko prestakuntza-beharrak dituzten pertsonen. Zenbaitek **adineko pertsonak** aipatzen dituzte. EAEn, garrantzi soziala eta demografikoa irabazten ari dira, eta, oro har, erretiroa hartzen dutenean aurreko belaunaldikoek baino kultura eta hezkuntza maila handiagoak dituzte.

Liburutegietako lehen-tasuneko biztanle-talde posibleekin jarraituz, aditu batzuek **emakume helduak** aipatu dituzte, arreta berezia jarrita inolako kualifikazio profesionalik ez dutenengan eta eskola-adineko seme-alabak dituzten emakume gazteengan. Eta ez dira gutxi 30 eta 35 urtetik gorako helduak nabarmendu dituztenak. Adituon iritziz, herritar horien garapen profesional edo lanekoan lagungarriak izan litezke liburutegiak.

Bestetik, liburutegi edo udalerrri bakoitzak xede-biztanleen lehentasunak zehaztea egoki edo beharrezkotzat jo dute profesionalak. Horrekin lotuta, behin eta berriz errepikatu dute erabiltzaileak ikertu beharko direla, eta «ez litzatekeela ez erreala ez baliagarria izango erabiltzaile-profil bakarra definitzea EAEko liburutegi guztien kasuan». Azkenik, gehienek uste dute liburutegiaren helburua ez dela bakarrik **erabiltzaileen ehunekoa** handitzea, baizik eta **talde ahulenei zerbitzuak eskaintzea**, bi ildo estrategikoak bateragarriak izateko lan eginez. Kasu batzuetan, ardura liburutegien artean banatu ahal izango da, edo bestelako laguntza-entitate edo-erakundeekin lankidetzan aritu.

«Erakunde publikoak diren aldetik, herritarren beharrak aurreikustea eta horiei aurre egitea dute zeregina, zerbitzu hobekak eskaintze aldera. Horri esker, erabiltzaileen ehunekoak gora egingo du. Bestalde, zalantzarik ez dago talde ahulenentzako zerbitzuak ere eskaini behar dituztela, prestakuntza-, aisialdi- eta informazio-beharrak asetzeko aukera gutxien dituzten biztanleak baitira. Gizarte demokratiko batek zerbitzu edo printzipio horiek bermatu behar ditu».

Etorkizunari begira

Aukerak eta mehatxuak

Liburutegi-zerbitzuei buruzko taldeko adituei EAEko liburutegien egungo indarguneak eta ahultasunak identifikatzeko eskatu genien. Baina, horrez gain, liburutegien etorkizuneko aukerak eta mehatxuak ere antzeman behar izan zituzten. Lehenengo galdetegian emandako erantzunetatik abiatuta, itemak ondoko hauetan bildu genituen. Hurrena, horiek baloratzeko eskatu genien (0 eta 10 puntu bitartean).

Esan beharra dago aukera horietako asko liburutegiek, bertako langileek eta euskal gizarteak dituzten potentzialtasunetan oinarritzen direla, eta adituek guztiak garatzea espero dutela, etorkizunari arrakastaz aurre egin ahal izateko horrela.

EAEko liburutegi publikoen **aukerak** (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Liburutegien eta bertako langileen lankidetzalana, bai beste liburutegiekin bai bestelako kultura- eta hezkuntza-erakundeekin	8,5	% 70,0
Krisi ekonomikoak balio berezia ematen die aukera-berdintasuna sustatzen duten zerbitzuei, hala nola liburutegi publikoei.	8,1	% 63,3
Euskal administrazioaren inbertsio-ahalmena, berrikuntzarekin eta garapen teknologiko eta industrialarekin lotutako testuinguru sozioekonomikoaren barruan	7,6	% 41,4
Herritarrek informazioaren inguruko orientabideak eta aholkuak jasotzeko gero eta behar handiagoa dute	7,5	% 53,3
Interneteko zerbitzuak. Horietan, Liburuklik eta blogen plataforma etorkizuneko apustuak dira.	7,4	% 53,3
Euskal gizartearen maila kultural ona-altua.	6,8	% 33,3

Iturria: aditu-taldea

Krisiaren mamuak eragiten ditu, neurri handi batean, liburutegien etorkizunarekin lotuta sortzen ari diren mehatxuak. Baina horrekin batera badaira aipatu beharreko beste bi elementu garrantzitsu, erakundeen eta profesio-

nalen lankidetzazailtasunei buruzkoak, ongien iritzitako aukeraren beste aldea, hain zuzen.

EAEko liburutegi publikoen **mehatxuak** (0 eta 10 bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Aurrekontu-murrizketek kalte handia eragin lezakete liburutegietako giza eta informazio-baliabideetan.	9,2	% 86,7
Liburutegiek udalekiko mendekotasun handia dute, eta hemendik gutxira, hori arriskutsua izan liteke: udalerririk eskaintzen dituzten zerbitzuen arteko desoreka handitu liteke, edo liburutegi txikiak atzean geratu.	8,2	% 63,3
Sektore profesional batzuek lankidetzazailtasunaren mesfidantza edo errezeloa dute.	7,9	% 63,3
EAEko erakunde-egiturak lankidetzazailtasun eta baliabideak optimizatzea oztopatzen du.	7,3	% 53,3
Bitarteko teknologiko edo ikus-entzunezkoak direla-eta liburu tradizionala krisian dago. Horrek liburutegien funtzionamendua mehatxatzen du.	6,4	% 43,3

Iturria: aditu-taldea

Liburutegien lehentasuneko helburuak

Liburutegien etorkizuneko lehentasunen inguruan aditu-taldeak egindako lehen-dabiziko galdetegiaren bidez hainbat helburu orokor eta espezifiko zehaztu

genituen hurrengo urteei begira. Ostean, bakoitzaren lehentasuna baloratzeko eskatu genien profesionali.

EAEko liburutegi publikoen etorkizuneko helburu **orokorrak eta espezifikoak** (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Liburutegietako giza baliabideak hobetzea, honako hauen bidez:	9,3	% 92,0
teknologia berrien inguruko etengabeko prestakuntza	8,9	% 93,1
erabiltzaileen eta zerbitzuen kudeaketaren inguruko prestakuntza	8,8	% 93,1
laneko kategoriak eta profesionalak kontratatzeko baldintzak ondo zehaztuz	8,2	% 69,0
EHUn bibliotekonomiako unibertsitate-ikasketak txertatuz	7,5	% 51,7
Liburutegien hezkuntza-zeregina sustatzea, honako hauen bidez:	9,2	% 88,5
informazio-alfabetatzea lortzeko eta erabiltzaileak prestatzeko zerbitzuak ezarri	9,0	% 93,1
bizitzan zeharreko prestakuntzarako baliabideak martxan jarri	8,9	% 89,7

Iturria: aditu-taldea

EAEko liburutegi publikoen etorkizuneko helburu **orokorrak eta espezifikoak** (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Media	8, 9 y 10
Liburutegien irudia hobetzea, honako hauen bidez:	8,9	% 84,6
politikako eta erakundeetako arduradunen artean liburutegien irudia hobetuz	8,9	% 79,3
liburutegi moderno, ireki eta hurbilekoen eta etengabe hobetzen ari diren liburutegien irudia hedatuz	8,8	% 82,8
liburutegien ikusgarritasuna handituz herritarren artean	8,7	% 82,8
liburutegien eta horien egungo erronken irudi eguneratua zabalduz sektoreko profesionalen eta langileen artean	8,6	% 79,3
Liburutegien sarea eta horren funtzionamendua sendotzea, honako hauen bidez:	8,9	% 92,9
erakunde arteko lankidetzak hobetuz	8,9	% 82,8
liburutegien arteko koordinazioa eta lankidetzak horizontalak garatuz	8,7	% 89,7
zerbitzu nagusiak zehaztea eta sendotuz	8,5	% 71,4
sare osoan bazkide-txartel bakarra ezarriz	8,5	% 69,0
Eusko Jaurlaritzaren partaidetza handituz	8,5	% 65,5
funtsak eskuratzeko partzuergoak eratuz	8,4	% 75,9
zerbitzua emateko partzuergoak garatuz	8,2	% 69,0
erakundeen eta horien mende dauden liburutegi-zentroen eskumenak eta funtzioak mugatuz	7,5	% 46,4

Iturria: aditu-taldea

EAEko liburutegi publikoen etorkizuneko helburu **orokorrak eta espezifikoak** (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Media	8, 9 y 10
Interneteko zerbitzuak eta horien presentzia indartzea, honako hauen bidez:	8,8	% 79,3
Katalogo-kontsulta hobetuz eta aberastuz	8,6	% 75,0
web mugikorreko zerbitzuak bultzatuz	8,6	% 86,2
tokiko ondarea digitalizatuz eta hedatuz	8,5	% 85,7
web sozialeko zerbitzuak bultzatuz	8,5	% 86,2
Ekipamendu teknikoa eta teknologikoa hobetzea, honako hauen bidez:	8,7	% 92,0
konexioak zerbitzura egokituz eta horiek hobetuz	8,4	% 89,7
erabiltzaileentzako ekipamenduak eta gailuak aldizka eguneratuz	8,3	% 82,8
gailu mugikorrak txertatuz lan-tresna gisa	8,2	% 72,4
erabiltzaileei eskainitako ekipamenduak dibertsifikatuz	8,1	% 72,4
Liburutegiak kudeatzeko sistemak hobetzea, honako hauen bidez:	8,6	% 64,0
plangintza estrategikoko prozesuak	8,1	% 58,6
erabiltzaileei buruzko ikerketa sistematikoak	7,7	% 55,2
kalitate-sistema homologatuak	7,6	% 44,8

Iturria: aditu-taldea

Etorkizuneko ikuspegia

Liburutegien erabiltzaileei, berriz, etorkizuneko liburutegien inguruko gogoeta egiteko eskatu genien. Hainbat ikuspegi proposatu genizkien, eta eurek horiekin bat zetozen adierazi behar zuten, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa eman ez.

Lortutako erantzunei erreparatuz gero, ikusiko dugu elementu batek oso adostasun maila altua lortu duela erabiltzaile guztien artean, sexua, adina eta bizilekua gorabehera. Hain zuzen, «liburutegietako oinarrizko zerbitzuek **doakoak izaten jarraitu** behar lukete» baieztapena da. Erabiltzaileek 9,2 puntuko balorazioa eman diote batez beste, eta % 90 baino gehiago oso ados edo erabat ados daude irizpidearekin. Ildo bereetik, hamarretik bat baino ez dago (% 9,7) ados liburutegia erabiltzeagatik urteko kuota jakin bat kobratzearekin. Horiek 7 eta 10 puntu bitarteko balorazioak eman dizkiote baieztapen horri, eta erabiltzaileek oro har 2,1 puntu,

batez beste. Proporzio handixeago batean, erabiltzaileen % 17,2 prest daude liburutegiko zenbait zerbitzu erabiltzeagatik ordaintzeko: 7 eta 10 puntu bitarteko balorazioak eman dizkiote, eta batez beste 3,3 puntuko balorazioa jaso du.

Erabiltzaileen ia erdiek uste dute ideia ona dela etorkizunean liburutegi gehiago egotea: % 47,5 oso ados edo erabat ados daude, eta 7 eta 10 puntu bitarteko balorazioa eman diote; batez bestekoa, berriz, 6,1 puntu dira. Era berean, % 63,9k liburutegiak «teknologikoagoak» izango direla uste dute: 7-10 punturekin baloratu dute eta batez beste 7,1 puntu jaso ditu. Horren aurka, herritarrek ez

dute begi onez ikusten aurrez aurreko liburutegiak ixtea lineako liburutegiak edo birtualak sortzeko (batez besteko puntuazioa, 2,5). Era berean, honako proposamen hauek ez dira «nahikora» iritsi: liburutegiak mediateka bihurtzea (4,3); zerbitzu batzuetan arreta biltzea eta horiek ekipamendu hobek eta instalazio handiagoak edukitzea (4,7); liburutegiak merkataritzako edo aisialdi eta denbora libreko eremuan txertatzea (4,4).

Adituen artean ere, adostasun handia dago liburutegi publikoetako **zerbitzuen doakotasunari dagokionez**, batik bat oinarrizko zerbitzuen kasuan. Hortik aurrera, biztanleek, oro har, uste dute zenbait zerbitzuek kostu jakin bat eragin diezaieketela erabiltzaileei, besteak beste, erreprografia-zerbitzuak, neurritan egindako zerbitzuak eta zerbi-

**Liburute
gietako
oinarrizko
zerbitzuak
doakoak
izaten
jarraitu
behar dute**

**Berdinak izango dira
baina teknologikoagoak**

**Gaur egun baino liburutegi
gehiago egon beharko dira**

**Gutxiago egon beharko dira (ez dira
beharrezkoak izango), baina
handiagoak eta hornituagoak**

**Zerbitzu komertzialak edota aisialdia dituzten
guneetan integratu beharko lirateke**

“Mediateka” bihurtu beharko dira

**Liburutegietako zerbitzu jakin batzuegatik ordaintzeko
prest egongo nintzateke**

Liburutegi asko itxi beharko dituzte eta “online” bihurtu

Liburutegiek, beren zerbitzuen erabileragatik, urteko kuota bat kobratu beharko lukete

Oinarria: liburutegiak erabiltzen dituzten EAEko biztanleak, guztira.


tzu espezializatuak. Batzuek bazkide edo erabiltzaileei urteko kuota edo tasa bat ezartzeko aukera aipatu dute. Eta, jakina, beste batzuek zerbitzuak doakoak izatea zalantzan jarri dute, bai liburutegi publikoak bai bestelako zerbitzu publikoak ere.

Edonola ere, interesgarriak diren zenbait ondorio atera ditugu:

- Doakotzat hartzeak errealitatea ezkutatu lezake: «ez dugu ahaztu behar ez direla doakoak, baizik eta herritarrek ordaintzen ditugula, zergen bidez».
- Doakoak izateak ez du esan nahi ez dela horien kostua ebaluatu behar eta ez direla zerbitzu publiko bakoitza eskaintzeko herritarrek egiten duten ekarpenaren kontuak eman behar. Eztabaida hori, hala ere, ez

litzateke krisi ekonomikoaren eraginpean egon behar zuzen-zuzenean.

- Horretarako herritarren arteko eztabaida bat antolatu behar litzateke, erabakia berea baitute.



Etorriko diren aldaketak

Oraindik ere, liburutegi publikoen lehengaiak bildumak eta gainerako informazio-baliabideak dira. Baina soinu eta ikus-entzunezko edukiak digitalizatzen ari dira eta liburu elektronikoa gogoz sartu da. Hori dela eta, liburutegiaren paradigma aldatzen ari da, zalantza eta galdera ugari sortzen diren aldi beretan.

Premisa hori oinarritzat hartuta, adituei galdetu genien haien ustez zer aldaketa egingo dituzten edo egin behar lituzketen liburutegiek, nola bildumen politiken inguruan hala liburutegi publikoetatik informazioa eskuratzeko moduaren inguruan. Ondoren, beren erantzunak laburbiltzen zituzten enuntziatuak baloratu zituzten.



EAEko liburutegietako **informazio-baliabideetan** egin beharreko aldaketak (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Etorkizunean ekipamendu fisikoa eta eremu birtuala izango ditugu, Interneteko nahiz aurrez aurreko zerbitzuak, bilduma analogikoak nahiz digitalak	9,2	% 89,3
Liburutegiek liburu elektronikoak eta bestelako material digitalak linean mailegatzeko zerbitzua eskaini behar dute.	8,9	% 92,9
Liburu elektronikoen erosketa eta kalitateko baliabideak linean eskuratzea zentralizatu behar lirateke.	8,8	% 78,6
Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak Internet bidez mailegua kudeatzeko eta liburuak eta bestelako materialak deskargatzeko plataforma bat izan behar du.	8,7	% 71,4
Liburutegiek arreta berezia jarri behar dute tokiko funtsak biltzean, kontserbatzean, digitalizatzean eta hedatzean.	8,5	% 78,6
Ezinbestekoa da sarea sendotzea, erabiltzaileekin partekatuko diren bildumak (fisikoak eta digitalak) garatzeko.	8,5	% 75,0
Liburutegien balioa aldatu egingo da: materialak eskuratzeko bitartekoa izatetik kalitateko materialak aukeratzeko, bideratzeko eta balioztatzeke zeregina izatera igaroko da.	8,4	% 78,6
Erabiltzaileek partaidetza handiagoa izan behar dute bildumen garapenean.	8,4	% 64,3
Liburutegiek erabiltzaileek bildutako bilduma digitalak sortu behar dituzte.	7,9	% 60,7
Liburutegien ardatza bilduma fisikoek eta birtualek jarraituko dute izaten.	7,3	% 46,4
Liburutegiek ordenagailu eramangarriak eta irakurtzeko eta bestelako lan intelektualek egiteko gailuak mailegatzeko aukera eskaini behar lukete gaur egun.	7,2	% 42,9

Iturria: aditu-taldea

Aurrez aurreko zerbitzuen eta zerbitzu birtualen arteko egungo dialektika dela eta, zerbitzuok eskaintzen diren guneak, horien barneko banaketa eta, lurralde barruan, ekipamenduak berriro

planteatu behar ditugu. Arazoaren inguruan duten jakintza dela bide, adituei galdetu genien beren ustez zer aldaketa gertatuko diren datozen urteetan liburutegi publikoetako eremu eta eki-

pamenduetan. Hauxe erantzunen laburpena eta profesionalak ostean egindako balorazioa:

EAEko liburutegietako **eremuetan** egin beharreko aldaketak (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Banaka irakurtzeko edo lan egiteko eremuez gain, elkartzeko edo taldean lan egiteko eremuak ere ezarri behar lirateke; hots, eremu isilak eta eremu «zaratatsuak».	9,0	% 92,9
Eremuak malguak, funtzio anitzekoak, hainbat jarduerara egokitu daitezkeenak... izan beharko dira.	9,0	% 85,7
Edozein komunikazio-material edo -teknologiaren erabilera areagotuko duten eremuak, erabiltzaileen autonomia eta beren arteko harremanak sustatuko dituztenak aldi berean.	9,0	% 92,9
Eremu erosoak, erakargarriak, informalak...	8,6	% 85,7
Eremuak ez dira euskarrien araberrako atal edo gelatan antolatuko, baizik eta erabiltzailearen eta berak egin ditzakeen jardueren arabera (prestakuntza, aisialdia, sormena, beste erabiltzaile batzuekin biltzea...)	8,2	% 71,4
Eremu fisikoa berriro planteatu beharko da, kontuan hartuta eskaintzen diren zerbitzu birtualak eta herriko bestelako ekipamenduak.	8,1	% 67,9

Iturria: aditu-taldea.

Adituek emandako erantzunen bidez ondorioztatu dugu gehienek apal nahiz biltegiei eta irakurtzeko eremu tradizionaleri eskainitako eremuak murriztuko

direla pentsatzen dutela. Aitzitik, zabaldu behar liratekeen eremu ugari aipatu zituzten; hortaz, beren ideiak zehatz-mehatz azaltzeko eskatu genien.

EAEko liburutegietan **zabaldu behar liratekeen eremuak** (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Aisialdirako eta jarduera kulturaletarako eremuak.	8,5	% 85,7
Prestakuntza eta ikaskuntzara (banaka zein taldean) zuzendutako eremuak.	8,3	% 78,6
Bilerak egiteko eremu informalak.	8,1	% 75,0
Ekipamendu teknologikoak eta multimedia-materialak hartzeko eremuak.	8,0	% 71,4
Sormena lantzeko eremuak.	7,8	% 67,9
Ikus-entzunezko edukiak hedatzeko eremuak.	6,9	% 42,9

Iturria: aditu-taldea

Liburutegietako zerbitzuak gaur egun eta etorkizunean

Ikerketa honen xede nagusietako bat izan da liburutegi publikoek ematen dituzten zerbitzuen inguruan EAEko biztanleek –liburutegiak erabiltzen dituztenak zein ez dituztenak– eta adituek duten iritzia ezagutzea

Ikerketa honen xede nagusietako bat izan da liburutegi publikoek ematen dituzten zerbitzuen inguruan EAEko biztanleek –liburutegiak erabiltzen dituztenak zein ez dituztenak– eta adituek duten iritzia ezagutzea. Guztiei honako hauek identifikatzeko eskatu diegu (beren ikuspegia baliatuta, betiere): etorkizunean desager litezkeen edo oso gutxi erabiliko diren zerbitzuak; gero eta garrantzitsuak izango diren zerbitzuak; egun eskaintzen ez diren zerbitzuak baino etorkizun hurbilean ezarriko direnak edo ezarri nahi lituzketenak; eta liburutegiak erakargarriago bihurtuko dituzten eta horien erabilera handitzea eragingo duten zerbitzuak.

Aldez aurretik, zerbitzua unibertsalizatzearen emaitza gisa sare edo sistema

bateko liburutegiek **zerbitzu-eskaintza** berbera izan behar duten galde-tu genien adituei. Hona hemen lortu dugun irizpide orokorra: herritar orok liburutegi-zerbitzu guztiak erabiltzeko aukera izan behar du, sareko liburutegi edo zerbitzu-puntu guztietan. Horretarako, bi elementu dira funtsezkoak, alde batetik, sare-lanak funtzionatzea eta sareak berak ondo funtzionatzea eta, bestetik, Interneta eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea. Horiek horrela, liburutegi guztietan oinarrizko zerbitzu-eskaintza bat eratzea planteatu dute adituek. Gero, hortik abiatuta, liburutegi bakoitzak eskaini beharko ditu zerbitzu pertsonalizatuak, nork bere profila osatuz horrela.

Hasierako planteamendua edo abiapun-

tua zehazteko, liburutegiak erabiltzen dituzten EAEko biztanleek horien zerbitzuen inguruan eta egun eta etorkizunean zerbitzuok izango duten garrantziaren inguruan duten iritzia baliatu dugu.

Bi galderetan, abstentzio-maila oso altua izan da, inkestaturen % 44,8k eta % 30,4k hautatu baitute ED/EE aukera. Hala, adostasun-mailarik handiena etorkizunean zerbitzurik desagertuko ez dela defendatzen duen baieztapenak lortu du, % 20,3, hain zuzen. Garrantzia irabaziko duten zerbitzuen kasuan, teknologia berrietan oinarritutakoek eta horiekin erlazionatutakoek erdie-tsi dituzte erantzunen ehuneko altue-nak. Erantzun dutenen % 8,6k uste du mailegu-zerbitzua desager litekeela; % 7,9k, ostera, garrantzia irabaziko duela defendatzen du. Etorkizunean izango duten garrantziarekin jarraituz, are ehuneko txikiagoak lortu dituzte

Liburutegietako egungo zerbitzuak: etorkizunean **desager litezkeenak
eta etorkizunean **garrantzia irabaziko dutenak****

(gehienez ere hiru. Ehunekoak)

Zerbitzuak...	...Desager litezkeenak	...Garrantzia iraba- ziko dutenak	Zerbitzuak...	...Desager litezkeenak	...Garrantzia iraba- ziko dutenak
Liburuen eta euskarri fisikoan dauden gainerako dokumentuen etxeko mailegua	8,6	7,9	Internet bidezko zerbitzuak	2,1	14,0
Liburutegi-bildumako dokumentu-mota guztiak kontsultatzea	3,4	1,5	Multimedia-atal bat eta multimedia-mailegua	5,2	2,0
Liburutegietako ekipamenduen bidez Internetera sartzea	0,7	1,4	Hemeroteka-atal bat	3,2	0,0
Wifi-eremuak	1,9	8,4	Liburuak paperean	4,3	0,2
Erabiltzaile guztiei zuzendutako softwarea duten multimedia-ekipamenduak baliatzea	1,4	6,0	Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak	0,0	16,5
Baliabide digitalak linean erabiltzea	0,0	1,8	Liburutegia erakunde gisa	3,0	0,0
Dokumentuak kopiatzeko zerbitzua	2,8	0,5	Ez du zerbitzurik adierazi	20,3	8,0
Hezkuntza formala bultzatzeko zerbitzuak eta prestakuntza-zerbitzuak	1,1	6,3	ED/EE	44,8	30,4
Haur, gazte eta helduei zuzendutako jarduera kulturalen programazio egonkorra	2,8	5,9			

Oinarria: azken hiruhilekoan liburutegiak erabili dituzten EAEko biztanleak, guztira.

hezkuntza eta prestakuntza bultzatzeko zerbitzuek eta herritar-mota guztientzako programazio kulturalak. Azkenik, gutxi batzuek liburu inprimatua edo hemeroteka nahiz ikus-entzunezkoen atalak desagertu litezkeela adierazi dute modu espontaneoan.

Aditu-taldeko partaideen iritziz, liburuen **mailegua** da etorkizunean desagertzeko aukera gehien dituen zerbitzua. Edonola ere, dokumentu analogikoei buruz ari dira, hau da, liburu eta ikus-entzunezkoak (musika, filmak...) edo euskarri fisikoan dauden bestelako dokumentuei. Beraz, ez dute esaten desagertuko denik, baizik eta eduki digitalak mailegatzeko zerbitzu bihurtuko dela. Aldi berean, mailegu hori Internet bidezko mailegu-zerbitzuarekin ordeztuko dela aurreikusi dute, deskargak edo streaming sistemak baliatuko dituenak.

Beste batzuek, berriz, paperezko liburuen mailegua hainbat urtez atxiki ez

ezik garrantzia irabazi ere egingo duela adierazi dute; horien aburuz, mailegu horri eta eduki digitalak mailegatzeko sistema berriei esker, etorkizuneko liburutegiaren funtsezko alderdia izango da mailegu-zerbitzua.

Bigarren postuan, aurrez aurreko **hemeroteka**-zerbitzuak, paperezko liburuen edo ikus-entzunezkoen kontsulta eta horiei eskainitako eremuak daude. Adituek diotenez, zerbitzuok desagertzeko edo murrizteko aukera ugari daude.

Halaber, dokumentu inprimatuen **erreprografia**- edo erreproduzio-zerbitzuak baztertuak izango direlakoan daude, bai eta erreferentzia-zerbitzua eta lineako katalogoa ere, egun ezagutzen dugun moduan.

Adituek ez dute zalantza handirik **informazio- eta erreferentzia**-zerbitzuen eraldaketaren inguruan. Horiei jarraikiz, laster desagertuko dira aurrez aurreko zerbitzu gisa eta paper nahiz bestelako

euskarri fisikoetan; aldiz, Interneteko iturrietan kontsultak egin ahal izango dira eta Interneten ere eskainiko dira zerbitzuok, eta horien erabilera handitzea eragingo du horrek.

Herritarrek gero eta **ordenagailu eta bestelako gailu** gehiago dituzte etxean, ikasteko edo lan egiteko zentroetan zein bestelakoetan. Hori dela eta, erabiltzaile guztientzako aplikazioak dituzten multimedia-ordenagailuak apurka-apurka liburutegietatik desagertuz joango direla iritzi diote zenbait adituk. Aldiz, aditu gehiagok uste du Interneteko konexioa duten ordenagailuen erabileran oinarritutako sarbidea eta liburutegietako zerbitzuak areagotuz joango direla: guztiok erabiltzeko moduko aplikazioak zein espezializatuak izango dituzte, wifi konexioa, bai eta irakurtzeko, lan intelektualak egiteko nahiz aisialdiko gailu eraman-garriak ere.

Aditu askok adierazi dute, halaber,

irakurtzearen inguruko jarduerak pisu handiagoa izango dutela. Zehazki, honako jarduera hauek aipatu dituzte: taldeko jarduerak eta irakurketa partekatuarekin lotutakoak (batez ere irakurketa-klubak baina, horretaz aparte, hitzaldiak, literatura-solasaldiak, egileekiko hizketaldiak...); idazketa eta sorkuntza literarioa lantzeko tailerrak; eta irakurketen inguruko orientabideak edo aholkuak emateko ekimenak, irakurtze-gida tradizionalak gainditzeko formulak behar dituztenak.

Horrez gain, **bizitzan zeharreko prestakuntza-** eta **ikaskuntza-zerbitzuen** etorkizunerako proiektzioa azpimarratu dute. Horien ustez, informazio-alfabetatzeak «liburutegi-erabiltzaile

izateko ez ezik, edozein bitarteko eta erakunderen bidez informazioa modu intentsiboan erabiltzeko ere» balio du. Bestalde, bizitzan zeharreko prestakuntzari dagokionez, azalpen hau jaso dugu: «aurrez aurreko formatuak hainbat abantaila ditu: 'aisialdi positiboa', beste pertsona batzuk ezagutzea, zale-tasunak partekatzea...». Edonola ere, Internet edo e-learning plataformen bidezko trebakuntza-prozesuekin osatzearen alde agertu dira adituak.



Interneteko zerbitzuak

Liburutegi publikoek egun eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, Internet bidezkoak atal batean bildu, eta horien etorkizuneko aukeren inguruko iritzia emateko eskatu genien kontsultatutako adituei.

Aipamen-kopuru handiena liburutegietako **katalogoek** izan dute; baina horietan gehienek, hala ere, linean kontsultatzeko katalogoak izateaz eta sareko bilduma guztiak jasotzeaz harago joan behar dutela eskatu dute. Ikuspegiak askotarikoak dira, baina guztiei katalogo-belaunaldi berri bat sortzeko beharra antzematen zaie, katalogo «aberastuak», alegia, hauetarako aukera emango dutenak:

- besteak beste, azala, aurkibidea edo kapitulu bat ikusteko;
- dokumentu osoa eskuratzeko edo hura mailegatzeko (dokumentua formatu digitalean dagoela nahiz liburu elektroniko bat dela);
- «interaktiboak» izateko, eta erabiltzaileek horiek etiketatu, gomendatu, baloratu eta partekatzeko;

- web semantikorako estekak izateko;
- partaidetzazkoa eta soziala izateko, honako hauek egiteko aukera eskainiz erabiltzaileei: «komentatzea, nota jartzea, edukiak igotzea, ekarpenak egitea, beste erabiltzaile batzuekin harremanetan jartzea, iradokitzea edo gomendatzea, bilaketak gordetzea, erabiltzaileek beren nahiak adieraztea, erosketak iradokitzea...»;
- mugikorretik zerbitzura sartzeko.

«Fitxa bat kontsultatzetik dokumentuaren eduki espezifikora igaro behar gara, liburu, mapa, irudi nahiz bestelakoa izanda».

Katalogoari «2.0 dimentsioa (bilaketak gordetzea, gogokenak, iritzia ematea, iradokizunak egitea..) eta bisuala (azalak) falta zaizkio».

Erabiltzaileek OPACen parte-hartze aktiboa balute, «gizarte-komunitateak sortuko lirateke, adimen kolektiboari etekina aterako genioke eta irakurlea indartu egingo genuke».

Beste askok **tokiko informazioa eta erkidegokoa** aipatu dute, eta oso etorkizunerako proiektio zehatza egin dute: helburua «sakabanatuta dagoen tokiko informazioa biltzea» da, hura digitalizatzea, argitaratzea eta hedatzea; azken batean, udalerrri bakoitzarekin lotutako tokiko gaiak bilduko dituen liburutegi digitala eratzea eta eskuragarri jartzea.

Era berean, gehiengoak uste du etorkizunean lineako sarbidea garrantzitsua izango dela: Interneten eskaintako zerbitzuak, **liburu elektronikoak eta audioliburuak, musika, filmak**, dokumentalak, datu-baseak eta oro har, baliabide digitalak.

Prestakuntzari laguntzeko zerbitzuak ere aipatu dituzte, zentzurik zabalenean. Adituen iritziz, horren barruan hainbat alderdi sartu behar lirate-

ke, besteak beste, liburutegi-zerbitzuak erabiltzeko tutorialak, autoprestakuntza edo prestakuntza autodidaktikorako materialak, hizkuntzak ikastea, teknologiak eta aplikazio informatikoak, eta prestakuntza arauturako laguntza.

Era berean, ezinbestekotzat jo dute gaur egun liburutegiarekin lotutako **izapide** edo zerbitzu **oro sarean kudeatu** ahal izatea (baldin eta horretarako aukera badago), hala nola erabiltzaile-txartelak, erreserbak egitea, maileguak egitea edo berritzea, liburutegien arteko maileguak, kontsultak egitea eta informazioa eta erreferentziak eskatzea.

Bestalde, adituek ez dute uste **sare sozialak**, blogak, wikiak eta abar erabiltzaileentzako zerbitzuak izan behar liratekeenik; aldiz, erabiltzaileekin komunikatzeko eta horiek parte hartu ahal izateko bitartekoak direlakoan

daude. Horien bidez, irakurketak eta informazioak gomendatu ahal izango dituzte, edozein informaziori buruzko kontsultak egin...

Atal honetan eta osagarriak diren besteetan bildutako proposamenak kontuan hartzen baditugu, ohartuko gara aditu gehienak bat datozen ideia orokor bat dagoela: etorkizunean, liburutegi eta erabiltzaileen arteko komunikazioa eta harremana Interneten eta bertan eskaintako zerbitzuetan oinarrituko da, batez ere erabiltzaileenganako arreta zuzena eta pertsonalizatuarekin lotuta dagoen guztian.

Zerbitzu berriak

Etorkizunean izango duten garrantzia dela-eta adituek aipatu dituzten Interneteko zerbitzuetako batzuk dagoeneko eskaintzen dituzte liburutegiek; hala ere, egia da oraindik ez dituztela oro har ematen edo askoz gehiago garatu behar direla.

Horregatik, liburutegi publikoek egun eskaintzen ez dituzten eta etorkizunean erabiltzaileek eska litzaketen edo liburutegiek eskaini behar litzaketen **zerbitzu berriak** zerrendatzeko eskatu genienean, liburutegiek dagoeneko eskaintzen dituzten zerbitzu horiek guztiak berriro aipatu zituzten adituek. Hurrengo irudian horiek proposatutako zenbait zerbitzu berri ageri dira, hainbat koloretan eta aipamen-kopuruaren arabera letra-tamainarekin.



Dokumentu elektro- nikoen mailegua Internetetik

OPAC-etik Ohikoaren baldintza berdintsuetan Lineako baliabideetarako sarbidea

Enpleguarentzako eta
autoenpleguarentzako baliabideak
Bideo-jokoak
Laborategiak (medialab, fablab, makerspaces...)
Spotify edo antzeko zerbitzuetarako sarbide publikoa
Software zehatzerako sarbidea
Lotutako multimedia informazioko plataformak
Erabiltzailearenganako harrera eta informazioa
komunikazio sozialeko tresnen bidez

Gune kulturala
Sorkuntza tailerrak
Erabiltzaileen produkzio
kulturalaren sustapena

Gailu mugikorren
bidezko zerbitzuak

Erreferentzia eta
hautaketa digitala

Gai lokalen liburutegi digitala

Baliabide elektroniko publikoen katalogazioa eta sorkuntza

Informazio-alfabetizazioa eta erabiltzaileen prestakuntza Bizitza osoko prestakuntza edo/eta ikaskuntza laguntza zerbitzuak

Guneak, informazio baliabideak eta ekipamenduak Erabiltzaileen profiei egokitutako tutorialak

Erabiltzaileen arteko komunikazioaren
sustapena eta zerbitzuen trukaketa
(adib. repaircafé)
Liburutegia topaleku
“Hots gabeko” ez diren egoteko guneak,
elkarrizketa sustatzea, informazioaren truke infor-
mazionala
Haurtzaindegia Maskotekin sarbidea
Kafetegia Ekitaldi-aretoa

Bideokonferentzia bidezko
irakurketa eta idazketa klub
birtualak

Liburutegia literaturarekin lotutako edozein
ekitaldirako gune gisa

Irakurketa klub profesionalak

Eskaripeko materialen digitalizazio /
inprimatze zerbitzua

Bertako egileei argitaratzeko
aholkularitza

Argitaratu gabeko materialaren publikazioa

Herriko ekitaldien dinamizatzailea

Jarduera lokalak iragartzeko gune
birtualaren lagapena

Taldean eraketarako eta ideien
laborategirako egoitza

13 urte eta gehiagoko EAEko biztanleei (erabiltzaileak zein ez) egindako galde-
tegietan **liburutegi** publikoak **hobetu**
edo **bertara joatea eragin** ahal izan-
go luketen iradokizun batzuk irakurri zi-

tzaizkien. Horiei 0 eta 10 puntu bitar-
teko balorazioa eman zieten. Emaitzei
erreparatuz gero, erabiltzaileak zein ez
direnek antzeko balorazioak eman di-
tuztela ikusiko dugu: bi taldeon kasuan,

liburutegiak hobetzeko eta bertara joa-
tea eragiteko proposamenek antzeko
puntuazioak jaso dituzte.

Zure herriko liburutegia **hobetu** edo **bertara joatea eragin** ahal izango luketen iradokizunak

(batez besteko balorazioa, 0 eta 10 puntu bitartean)

	Erabil- tzaileak	Ez erabil- tzaileak		Erabil- tzaileak	Ez erabil- tzaileak
Gaur egungo liburu-eskaintza ona izatea.	8,7	8,0	Ordutegia zabaltzea (adibidez, arratsalde eta asteburuetan).	7,4	6,8
Kalitateko musika eta filmen (CDak, DVDak...) eskaintza handiagoa izatea.	7,9	7,6	Ekitaldi eta jarduera sozialetan parte hartu ahal izatea (adibidez, liburuen aurkezpenak edo sinadurak, klub sozialak...)	7,1	6,6
Ekipamendu teknologiko hobeak izatea (adibidez, ordenagailu eta Interneterako sarbide hobeak).	7,9	7,6	Liburu elektronikoen irakurgailuak eta bestelako gailu digitalak mailegatzea.	6,8	6,9
Haur eta familientzako jarduerak programatzea.	7,7	7,3	Liburutegi-zerbitzuen eskaintza hobeak izatea eremu publiko edo merkataritzakoetan.	5,8	6,5
Teknologiak erabiltzeko moduari eta Interneteko zerbitzuei buruzko prestakuntzan parte hartzea.	7,7	7,6	Kafetegi-zerbitzua izatea.	4,7	4,9
Internet bidez zerbitzu gehiago erabili ahal izatea.	7,6	7,4	Bat ere ez, ez dut liburutegietara joateko interesik.		1,7
Tokiko informazio-zerbitzuak hobetzea (tokiko historia, genealogiak...).	7,5	7,3			

Oinarria: liburutegiak erabiltzen dituzten eta ez dituzten 13 urte eta gehiagoko EAEko biztanleak.

Erabiltzaileak diren zein ez direnen artean, balorazio handiena jaso duten iradokizunak **informazio-baliabideen eskaintza hobetzearekin** lotutakoak izan dira: liburu onak eta gaur egungoak, ikus-entzunezkoen eskaintza handiagoa eta baliabide informatiko hobeak.

Oro har begiratuta, talde guztiek puntuazio handiena ematen diete aukera horiei. Bi gauza bakarrik dira azpimarragarriak, alde batetik, nerabeek puntuazio altua eman dietela ikus-entzunezkoen eskaintzari, eta adinak gora egin ahala ekipamendu teknologikoen balorazioak apurka-apurka behera egiten duela.

Nolanahi ere, edozein aldagai hartzen dugula ere, hobekien baloratutako iradokizuna gaur **egungo liburuen** eskaintza ona dela aurkitzen dugu: bi sexuen kasuan, adin-talde guztietan eta tamaina guztietako herrietan, bai eta ikasketa-maila eta lanbide guztie-

tako biztanleen artean ere.

Balorazio handiena jaso dutenen artean, halaber, **Interneti lotutako proposamenak** daude: informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera-ekin lotutako trebakuntza, eta Internet bidezko zerbitzuak hedatzea. 45 urtetik aurrera, hala ere, bi aukerek puntuazio txikiagoak jaso dituzte.

Gazteek eta heldu gazteek liburu elektronikoen eta bestelako gailu mugikorren maileguari eman diote garrantzi handiena. Hori ez da hala ez nerabeen ez 45 urtetik goragokoen artean. Eta kafetegi-zerbitzuari gazteek eta hiri handietako biztanleek baino ez diote garrantzi handirik eman.

Aldeak txikiak badira ere, **emakumeek** batez besteko balorazio altuagoa ematen diete proposamen guztiei. Hala, 8, 9 edo 10 puntu eman dituzten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, azkeneko aukeran izan ezik («ez dut iradokizunik, ez dut liburutegietara

joateko interesik»). Beraz, hor ere argi geratzen da emakumeek irakurketa publikoko zerbitzuak erabiltzeko prestasun handiagoa dutela.

Ildo beretik, tarteko belaunaldiek (25-44 urte) interes handiagoa dute ia proposamen guztien inguruan. Aldiz, nerabeek eta adineko pertsonak jarrera epelxeagoa dute.

Liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Komunikazioaren eta informazioaren teknologiak zeharkako gai bat dira; hortaz, elkarrizketatutako biztanleriari (erabiltzaileak zein ez) eta kontsultatutako adituei egindako galdera ugarietan aipatuak izan dira.

Hala eta guztiz ere, atalak berariaz eskaini dizkiegu. Lehenik eta behin, EAEko liburutegi publikoek eskaintzen dituzten edo eskain litzaketan zenbait

zerbitzuren inguruan erabiltzaileek duten iritzia jakin nahi izan dugu.

Galdegindako hamar lagunetik zortzik

baino gehiagok uste du ezinbestekoa edo oso garrantzitsua dela (7 eta 10 puntu bitartean) liburutegiko edozein izapide Internet bidez kudeatu ahal izatea, adina, sexua, udalerraren tamaina, ikasketa-maila eta gainerakoak gorabehera. Adostasun-maila handia lortu du, halaber, liburutegiek euskal kultura eta beste herrietakoa digitalizatu, babestu eta hedatu behar luketela defendatzen duen baieztapenak. Interesa areagotzen da adina zenbat eta handiagoa izan, eta tamainaertaineko hirietan ere, beste hainbeste. Halaber, talde guztiek interesgarritzat jo dute liburutegiek informazioa erabiltzeko moduaren inguruko ikastaroak edo tailerrak eskaintzea. Taldeon arteko diferentziak oso urriak

Erabiltzaileek liburutegietako honako zerbitzu hauei emandako garrantzia:
(0 –garrantzirik gabekoak– eta 10 –ezinbestekoak– puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa
erabiltzaileek Internet bidez edozein izapide kudeatu ahal izatea.	8,3
euskal kultura eta udalerrri bakoitzarena digitalizatzea, babestea eta hedatzea.	8,1
informazioa erabiltzeko moduari buruzko prestakuntza ematea.	7,9
beren zerbitzu birtualak gailu mugikorretara egokitzea (telefonoak, tabletak...).	7,1
sare sozialetan presentzia izatea (Facebook, Twitter, Tuenti...).	6,5

Oinarria: azken hiruhilekoan liburutegiak erabili dituzten EAEko biztanleak, guztira.

badira ere, adin handiagoko pertsonak garrantzi handiagoa ematen diote proposamen horri. Liburutegietako zerbitzu birtualak gailu mugikorretara egokitzeari dagokionez, aldiz, hotz agertu dira adineko pertsonak eta erretiratuak. Haatik, bi biztanleria-taldeok eta nerabeek garrantzi handiagoa eman diote, batez beste, liburutegiek sare soziale-tan presentzia izateari.

Horretaz aparte, aditu-taldean parte hartu zutenei hainbat **tresna eta zerbitzu teknologiko eta Internetekoak** identifikatzeko eta zerrendatzeko eskatu genien. Hain zuzen, liburutegietan txerta litezkeenak edo herritarrei arreta emateko liburutegiek erabilizaketanak zehaztu behar izan zituzten. Emaitza gisa hainbat eta hainbat alderdi hartzen dituen zerrenda luze bat lortu dugu: ohiko posta elektronikoaz gain, liburutegiei informazioa berrerabiltzeko eta balio erantsiko informazioa aurkezteko aukera emango dieten tresnak (open access, open data, big data eta abarren iraultza abiapuntutzat hartuta) eta lizentzia irekiak ere aipatu dituzte.

«Zerbitzu batzuek lankidetzan oinarrituta egon behar lukete, beste batzuek, herriz, sarearen egitura nagusiaren bidez elikatu, eta beste batzuk, herriz, liburutegi jakin batek sortu litzake... Horiek elikatzen erabiltzaileek ere parte hartu behar lukete».

«Nik bi joera bereizten ditut: alde batetik, pertsonak, liburutegiek eta tokiko komunitateek edukiak sortzea, eta, bestetik, Interneteko informazioa berrerabiliko duten aplikazio eta tresna teknologikoak garatzea».



Hurrengo zerrendan ekarpen ugariak laburbiltzen eta sistematizatzen saiatu gara:

Webguneak

Dinamikoagoak eta erabilerrazagoak izan behar dute; hori ez ezik, sartzeko atari gisa ere funtzionatu behar dute, horietatik abiatuta hainbat ekintza egin ahal izateko: liburutegietako zerbitzuak erabili, informazio orokorra irakurri, dokumentura sartu, kudeatu, tutorialak eta albisteak kontsultatu eta abar..”

Gizarte-komunikazioko zerbitzuak, sare sozialak eta 2.0 web-zerbitzuak

Dinamikoagoak eta erabilerrazagoak izan behar dute; hori ez ezik, sartzeko atari gisa ere funtzionatu behar dute, horietatik abiatuta hainbat ekintza egin ahal izateko: liburutegietako zerbitzuak erabili, informazio orokorra irakurri, dokumentura sartu, kudeatu, tutorialak eta albisteak kontsultatu eta abar.

Edukiak kudeatzeko plataformak

Ezinbestekoa da liburu elektronikoak kudeatzeko (mailegua barne) plataforma bat izatea. Hura OPACen eta dokumentura eta multimedia-edukietara sartzeko plataforma eta zerbitzuetan integra liteke, edo horien osagarri izan (liburutegi digitala eta Liburutegirik, audioliburuak, entziklopedia digitalak, hemeroteka digitala, musika eta filmak...) Era berean, liburutegiek merkataritza-zerbitzuetara (hala nola Spotify, 24 Symbols eta Filmin-era, hodeian gordeta daudenak) sartzeko aukera eman behar dute.

Prestakuntza-plataformak

Lineako prestakuntzarako (e-learning) tresnak, tutorialak sortzea, informazio-alfabetatzeko eta erabiltzaileak trebatzeko programak...

Eduki propioak sortzea

Tokiko komunitatearekin lotuak izan behar dira, horretarako Interneteko informazioa berrerabilita edo administrazio-informazioa berriro sortuta, Wikipedia nahiz Wikilocs-ekin lankidetzan arituta...

Informazioa zabaltzeko eta berriro zabaltzeko zerbitzuak

Adibidez, buletinak, mugikor bidezko albiste- eta berritasun-mezuak, eta RSS kanalak (jarduera-agenden kasuan). Lan-munduari buruzko informazioa berriro zabaltzea, hala nola lan-eskaintzak eta -poltsak. e-administrazioko izapide eta kudeaketak egiteko informazioa eta laguntza...

IKT berrikuntzak erabiltzea eta hedatzea

Ekipamendu bereziak erabiltzeko aukera izatea, 3D inprimagailuak, bereizmen handiko eskanerrak, bideokonferentzia-aretoak eta PS nahiz Wii kontsoletarako jokoak, besteak bestea. Prototipo edo berrikuntza teknologikoak aurkeztea eta saiakuntzak egitea (tabletak, smartphoneak, liburu elektronikoak...). Horrez gain, smartphoneak eta beste gailu mugikor batzuk erabiltzea liburutegiko lan-tresna gisa.

Zerbitzuak web mugikorraren bidez eskaintzea

Horren barruan sartzen dira gailu mugikorretarako berriazko zerbitzuak eta liburutegiak Internet bidez eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuen bertsio egokituak.

Liburutegiak eta hezkuntza

Liburutegien funtzio eta zereginen mintzatzean argi utzi zuten moduan, liburutegi publikoek hezkuntza-zeregin garrantzitsua dute aditu gehienen aburuz.

Liburutegi publikoen **prestakuntza-profila sendotzeko** estrategiak (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batez- bestekoa	8, 9 eta 10		Batezbes- tekoa	8, 9 eta 10
Koordinazio-zerbitzu bat sortu behar litzateke, hezkuntza-zerbitzuekin lotutako proiektuak aurrera eramateaz gain, liburutegiei horren inguruko aholkua emateko.	8,3	% 67,9	Liburutegien baliabideak antolatu eta bideratu behar dira, adin guztietako biztanleentzat ikaskuntzarako baliagarriak izan daitezzen.	7,8	% 42,9
Liburutegien lehentasunetako bat prestakuntza autodidaktikoa sustatzeko jarduerak gauzatzea izan behar luke, jakintzaren edozein arlotan.	8,2	% 71,4	Liburutegietako prestakuntza-zerbitzuek sare osoari eragingo liokeen plangintza izan behar lukete.	7,4	% 57,1
Etengabeko prestakuntzari dagokionez, liburutegiek lineako ikaskuntza-plataforma bat eta bestelako web-baliabideak izan behar lituzkete.	8,1	% 67,9	Liburutegien lehentasunetako bat enplegua bilatzeko prestakuntza-jarduerak gauzatzea izan behar luke.	7,3	% 48,1
Liburutegien lehentasunetako bat informazio-alfabetatzea sustatzeko jarduerak (batez ere helduen artean) gauzatzea izan behar luke.	8,1	% 64,3	Liburutegien lehentasunetako bat ikasleei beren zereginak gauzatzeko laguntza ematea izan behar luke.	7,0	% 46,4
Liburutegien baliabideak antolatu eta bideratu behar dira, adin guztietako biztanleentzat ikaskuntzarako baliagarriak izan daitezzen.	7,8	% 53,6	Liburutegien lehentasunetako bat hizkuntzak ikasteko prestakuntza-jarduerak gauzatzea izan behar luke.	6,9	46,4%

Iturria: aditu-taldea.

Funtzio horrek ez du formulazio argirik izan ez EAEn ez gainerako autonomia-erkidegoetan. Horregatik, lehenengo kontsultan hura sendotzera bideratutako hainbat ekimen eta estrategia

adierazteko eskatu genien. Bigarren galdetegian horien guztien laburpenak baloratu zituzten.

Horiez aparte, prestakuntza-zerbitzuak garatu ahal izateko liburutegiek gaindi-

tu behar lituzketen hainbat oztopo adierazi zituzten adituek.

Liburutegi publikoen **prestakuntza-profila sendotzeko** estrategiak (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Erakundeek eta bertako arduradunek ez dituzte liburutegiak prestakuntza- eta ikaskuntza-zerbitzutzat hartzen.	9,0	% 89,3
Liburuzainek ez dute hezkuntza-funtzioen inguruko prestakuntzarik.	8,0	% 67,9
Sektorearen jarrerak ez du aldaketa laguntzen.	7,7	% 63,0
Liburutegiek ez dute herritarren prestakuntza eta ikaskuntzarako eremu, instalazio edo baliabide informatiko nahiz ekonomikorik.	7,4	% 60,7
Eskolako liburutegiak behar bezala garatzen ez badira, liburutegiak ezingo dira hezkuntza-eremu bihurtu.	7,3	% 57,1
Biztanleek ez dute bizitzan zeharreko prestakuntza-eskaririk hezkuntza formaletik edo laneko esparrutik kanpo.	5,2	% 29,6

Iturria: aditu-taldea

Partaide batzuek adierazi bezala, konzeptua, paradigma aldatu behar da. Eta aldaketa hori ez da erakunde-alorrean soilik gertatu behar; aitzitik, liburutegi-sistema eta bertako profesionalak ere hartu behar ditu bere baitan. Hala, liburutegia ez da bakar-bakarrik hezkuntza-eremu bat izango (fisikoa eta birtuala); hezkuntza-sisteman integratuta egongo da, bestelako liburutegi eta prestakuntza-sareekin batera.

Zenbaitek, baina, estrategia hori zalan-tzan jartzen dute, hezkuntza-sistema eta hezkuntza ez-formaleko beste sare batzuk ere badaudelako. Nolanahi ere, gehienek uste dute liburutegi publikoaren prestakuntza-zereginari heltzeko, hurrengoekin lankidetzan aritu beharra dagoela:

- ikastetxeak eta bertako liburutegiak;
- bestelako tokiko erakundeak;
- KZgune sarea;
- Hezkuntza, Industria eta Lan Sailak eta bestelakoak.

«Kudeaketaren oso ikuspegi zatikatua dugu. Hezkuntza, kultura eta gaztediaz hitz egiten dugu, eta sail bakoitzak bere politikak gauzatzen ditu, zeharkakotasun-izpirik gabe».

«Zerbitzu zentralizatueta oinarritutako politikatik zerbitzu koordinatueta oinarritutako beste batera igaro behar dugu. Erakunde nagusi bat ardatz duten politikek ez dute balio (onartezinak dira ekonomikoki nahiz sozialki). Tokiko ahaleginei guztiok modu koordinatuan etekina ateratzeko politika aplikatu behar dugu; horrela, liburuzainen lanaren errentagarritasun soziala areagotu egingo da, eta beren buruan duten konfiantza handitu».

Liburutegi publikoak eta euskal kultura

Oro har, aditu-taldeko partaideak ados daude liburutegi publikoek euskal kultura eta hizkuntza babesteko eta hedatzeko «zeregin garrantzitsu baino garrantzitsuagoa» izan dutela eta izan behar dutela defendatzen duen baieztapenarekin.

«Liburutegi publikoek euskal kultura eta hizkuntza berreskuratzeko, garatzeko eta hedatzeko ahalegin handiak egin dituzte dokumentazio-, komunikazio- eta zabaltze-lanen bidez».

Partaide batzuek esandakoaren arabera, liburutegiek bereziki proaktiboak izan behar dute, eta «eduki guztiak erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan emateak eragindako asepsia legala gainditu behar dute, euskarazko edukien sorkuntzari eta hedapenari balio erantsia emateko lan eginez». Besteen aburuz, euskararen edo euskal kulturaren presentzia gaztelaniazkoaren «parean» egon behar da. Eta badira euskal kulturaren erakusleho izateaz gai, EAEko liburutegi publikoak mundurako erakusleho ere izan behar direla defendatzen

dutenak, kultura unibertsala sustatuz horrela.

Euskarazko obrek liburutegi-funtsetan duten presentzia kontu handiz zaindu behar da, nahiz eta horretarako ahalegin handiagoa egin behar. Liburutegiek berritasunetan arreta jarri behar dute, haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza zaindu, fikziozko obrez gainera jakintza-liburuak ere eskaini, euskarazko funtsak berritu eta garbitu, erraz irakurtzeko euskarazko liburuak eta multimedia-materiala eduki...

Batzuek ohartarazi dute aurrekontu-murrizketek kalteak eragin litzaketela aipatutako funtsetan, edo zenbait gairen inguruko euskarazko obrak topatzea zaila dela, edo sarean –Wikipedian, bereziki– euskarazko edukiak oso urriak direla. Ostera, beste batzuek gogoratu dute informazio-baliabide horiek kontuan hartzeaz gain, beste hizkuntza ba-

tzuetan dauden edukiak ere izan behar dituztela liburutegiek, eta immigran-teen kultura eta hizkuntzari arreta be-rezia eskaini behar dietela.

EAE erkidego elebiduna denez gero, li-burutegi publikoetako zerbitzuak eus-karaz eta gaztelaniaz eskaini behar dira, «hartzailea izango den hizkuntza-taldearen arabera» zerbitzu espezi-fikorik gabe. Hala ere, jada ezarritako edo ezar litezkeen ekimen ugari bildu ditugu horren inguruan, honako hel-buru hauek dituztenak, besteak beste: euskaraz irakurtzea sustatzea, euskara-ren erabilera normalizatzea, elebitasun aktiboa eta elkarbizitza elebidunak bul-tzatzea. Hauexek dira nagusiak:

- euskarazko irakurketa-klubak;
- euskarazko prestakuntza-zerbitzuak edo autoprestakuntzakoak;
- euskaraz irakurtzea dinamizatze-ko jarduerak;
- elebitasun aktiboa sustatzeko jarduerak, hala nola solasaldiak, hitzaldiak, eztabaidak, erdaldunei

zuzendutako euskarazko obren aurkezpena (eta alderantziz), euskara ikasteko eta praktikatzeko hizkuntza-bikoteak...

Era berean, liburutegi publikoek lan dokumental edo profesionaletan zere-san handia izan lezaketela nabarmendu dute adituek, adibidez, sarean euskara-zko eta euskal gaiekin lotutako edukiak sor litzakete, Glamwiki integratu litezke eta Wikipedian, liburutegi digitaletan eta biltegi handietan sarrerak sortzea bultzatu lezaketela...

«Hizkuntza eta kultura zaindu nahi baditugu, guk geuk, herritarrok, sortu behar ditugu produktu kulturalak; liburutegietako profesionalok horiek sortzeko eta zaintzeko laguntza eman dezakegu, tresna digitalak nola erabili behar diren irakatsiz, iturri dokumentalak ikusgarri bihurtuz, edukiak berrerabiltzeko aukera ematen duten lizentziak edukitzea erraztuz, biltegi handien (Europeana kasu) eskakizunetara egokitutako metadatuak erabilia objektuak deskribatuz...».

Erakundeen zeregina

Gaur egun, liburutegi publikoen zerbitzua eskaintzeko lanean administrazio guztiek parte hartzen dute, bakoitzak bere moduan.

Teknologia garatuz doa, baliabideak optimizatzea beharrezkoa zaigu eta liburutegi-zerbitzua elkarren artean konektatutako zerbitzu-puntu edo liburutegi-sare gisa hartzen duen ikuspegia

nagusitzen ari da. Horiek horrela, gero eta agerikoagoa da lankidetzaren funtzioa izango dela etorkizunari aurre egiteko. Premisa horietatik abiatuta, adituen taldekoei galdetu genien haien

iritziz zer zeregin legokiokeen administrazio bakoitzari. Ondoren, emandako erantzunen laburpena baloratzeko eskatu genien.

Udalen arazoak, liburutegi publikoen zerbitzua ematean protagonistak izateko (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Goi-erakundeek udalei –batez ere, txikienei– laguntza eman behar diete.	9,2	96,4%
Udalek zerbitzua eskaintzeko partzuergoak sustatu behar lituzkete beste udal batzuekin (udalerrri txikietan, Arabako kuartillak kasu) nahiz gainerako erakundeekin (hirietan).	9,0	77,8%
Udalek ez dute behar bezala baloratzen liburuzainaren eginkizuna.	8,5	67,9%
Udalek ez dute behar bezala aintzatesten liburutegi publikoek herrian duten zeregina eta balioa.	8,3	75,0%
Udalek ez dizkiete ematen liburutegi publikoei kalitateko funtzionamendua eskaintzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak.	8,0	71,4%

Iturria: aditu-taldea.

Oro har, adituak bat datoz eta **udalei** aitortzen diete legeak ezarritakoari jarraikiz berea dutela liburutegi publikoko zerbitzua ematearen protagonismoa (hura sortzea, kudeatzea, finantza-

tzea...), herritarrengandik gertuena dauden erakundeak baitira. Baina, aldi berean, zeregin horretan udalek egun dituzten gabeziez eta arazoez ere ohartarazi dute.

Alabaina, ez dago hain argi liburutegi publikoen zerbitzua eskaintzeko arduran zein den **foru-aldundien** eginkizuna. Erantzun batzuek adierazi bezala, beharbada eztabaida sakonagoa be-

Foru-aldundien zereginaren inguruan (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin koordinatu behar dute toki-mailan liburutegi publikoen zerbitzuan lan egiteko.	9,5	% 92,6
Foru-aldundiek eta bertako liburutegiek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean parte hartu behar dute.	9,1	% 89,3
Foru-liburutegiek beren lurraldeko udalekin elkarlanean aritu behar dute, liburutegi publikoei prestakuntza-baliabideak, ekipamendu teknikoak, datu-baseak eta abar emateko.	9,1	% 92,6
Foru-aldundiek erakundeen arteko partzuergoak sustatu eta bultzatu behar dituzte, udalerrietan liburutegi publikoko zerbitzua eskaini ahal izateko.	8,9	% 81,5
Foru-aldundiek beren lurraldeko liburutegi publikoak finantzatzen lagundu behar dute (informazio-baliabideak, langileen kontratazioa, azpiegiturak...)	8,7	% 81,5
Foru-aldundiek irakurketa sustatzeko udal-planen garapena indartu eta babestu behar dute.	7,0	% 50,0
Foru-aldundiek probintziako sarearen koordinazio-buruak izan behar dute.	6,2	% 34,6
Foru-aldundien zeregina beren foru-liburutegiak mantentzera mugatu behar da.	2,4	% 3,7

Iturria: aditu-taldea.

har du horrek. Edonola ere, ia guztien aburuz, foru-aldundiek elkarrekin koordinatu behar dute toki-mailan liburutegi publikoen zerbitzura lan egiteko. Aldiz, gehiengo handi batek baztertu egin du aldundien zeregina foru-liburutegiak mantentzera mugatzea defenda-

tzen duen ideia (partaideen % 77,8k lau puntu baino gutxiago eman dizkiote). Liburutegi publikoko zerbitzua emateari dagokionez, adituek hainbat erantzukizun esleitu zizkioten **Eusko Jaurlaritzari**, baina, horrez gain, finantzazio-konpromiso handiagoa ere

eskatu zuten askok. Hori dela eta, bi gai horien inguruko lehenetasunak baloratzeko eskatu genien.

Eusko Jaurlaritzaren erantzukizun nagusiak

(0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Plangintza estrategikoa.	9,3	% 100,0
Sare osoan aplikatuko diren arauak, estandarrak eta gidalerroak garatzea, eta horiek betetzen direla zaintzea.	9,0	% 85,7
Euskadiko zein Espainiako erakunde, liburutegi-sare eta bestelakoekin koordinatzea.	8,9	% 89,3
Zerbitzua emateko partzuergoak abian jartzea hainbat esparrutan.	8,7	% 78,6
Euskal Liburutegi Nazionala, Euskal Liburutegi Digitala, euskal bibliografia eta abar garatzea eta mantentzea.	8,6	% 78,6
Asoziazionismoa eta profesionalen prestakuntza indartzea.	7,9	% 66,7

Iturria: aditu-taldea.

Liburutegi publikoen zerbitzuaren finantzazioaren inguruan
Eusko Jaurlaritzak izan beharreko lehentasunak
 (0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Sailaren zerbitzua indartzea giza baliabide eta baliabide teknikoaren bidez. Horiei esker, euskal liburutegi-sistema koordinatzeaz gain, horren ordezkaritza ere izango da.	9,2	% 89,3
Interneteko zerbitzuak hobetzea eta sare osoan zabaltzea: blogen plataforma, kudeaketa-programa (katalogatzea barne), liburu elektronikoetarako plataforma, liburutegi digitala eta audioliburuena...	9,0	% 85,7
Zerbitzua indartzea biztanleria-talde ahulak bizi diren eremuetan.	8,8	% 75,0
Funtsez hornitzeko, IKTak sustatzeko, irakurtzea sustatzeko egungo diru-laguntzak atxikitzea eta hobetzea.	8,7	% 85,7
Euskara eta euskal kulturaren sustapena areagotzea.	7,7	% 57,1
Udalei transferentziak egitea, liburutegi publikoen zerbitzua eman dezaten.	7,5	% 50,0

Iturria: aditu-taldea.

Azkenik, jarraian aurkezten dugun taulan **Kultura Ministerioak** (edo kulturaren alorreko eskumenak dituenak)

liburutegi publikoekin lotuta bete beharreko zeregina ageri da.

EAEko liburutegi publikoen inguruan Kultura Ministerioak bete beharreko funtzioak
(0 eta 10 puntu bitarteko balorazioa)

	Batezbestekoa	8, 9 eta 10
Nazioarteko foro eta proiektuetan parte hartzea sustatzea eta erraztea.	8,2	% 74,1
Liburutegi publikoak finantzatzen laguntzea.	8,1	% 55,6
Kongresuak, topaketak, ikastaroak eta abar antolatzea.	7,9	% 66,7
Sektorearentzat garrantzitsua den informazioa bideratzea eta zabaltzea.	7,7	% 70,4
Jarraibideak, arauak eta estandarrak sortzea eta egokitzea.	7,7	% 66,7
Euskal sistema Espainiako eta nazioarteko bestelako sistema eta sareekin koordinatzea.	7,6	% 63,0
Ez du berariazko funtziorik bete behar.	2,7	% 8,3

Iturria: aditu-taldea.

Erabiltzaileak, liburutegien aktibo nagusia

EAEko erabiltzaileek ondo baloratzen dituzte liburutegiak, eta hori, aldi berean, bat dator erabiltze soilak izatetik harago duten prestasunari buruz galdetu zaie-nean adierazitako jarrera positibo eta hurbilarekin.

Erabiltzaileak prest egon litezke zere-ginen bat betetzeko, eta horrek lehen mailako aktibo bihurtzen ditu liburutegien ikuspegitik. Herritarren konpro-

miso horrek liburutegi publikoen sarea garatzeko oso bide interesgarriak ireki litzake, bai eta kudeaketa-paradigma berri bat sortu ere.

Erabiltzaileak prest agertzen dira:

...erabilera gomendatzeko

...boluntario modura kolaboratzeko

...kudeaketan parte hartzeko

EAEko ia erabiltzaile guztiak daude prest beren senide edo lagunei liburute-gietara joatea gomendatzeko; horietatik erdiek, era berean, liburutegiko jardueretan boluntario gisa parte hartzeko prestasuna adierazi dute. Azkenik, sei

erabiltzailetik lau prest egongo lirateke liburutegia babesteko edo ikuskatzeko organo batean parte hartzeko, halakorik proposatuz gero.

Nabarmendu behar dugu erabil-

tzaile guztiak liburutegiak erabiltzea gomendatzeko prest daudela, sexua, adina eta bizilekua gorabehera. Kasu honetan ere, emakumeen prestasun-maila handiagoa da. Erabiltzaile gisa laguntzeari edo kudeaketan parte hartzeari

dagokionez, prest dauden erabiltzaileen kopuruak gora egiten du adina eta udalerraren tamaina handitu ahala.

Honako jarduera hauek egiteko prest egongo liratekeen erabiltzaileak (ehunekoak)

	lagun edo senideei liburutegia erabiltzea gomendatzea	liburutegiko jardueretan boluntario gisa parte hartzea	liburutegia babesteko edo bere kudeaketa ikuskatzeko organo batean parte hartzea
Guztira	95,0	50,1	40,3
Emakumeak	97,4	52,4	43,4
Gizonak	92,4	47,5	36,8
13 eta 16 urte bitartekoa	93,9	35,4	26,7
17 eta 24 urte bitartekoa	97,8	48,1	35,3
25 eta 34 urte bitartekoa	92,5	50,2	44,4
35 eta 44 urte bitartekoa	93,2	48,1	38,4
45 urte eta gehiagokoa	97,0	57,6	46,3
3.000 biztanletik beherakoa	94,1	45,4	37,6
3.000 eta 20.000 biztanle bitartekoa	94,2	46,8	35,3
20.000 biztanletik gorakoa	95,1	52,8	45,0
Hiriburuak	96,2	51,5	41,1

Oinarria: liburutegiak erabiltzen dituzten EAEko biztanleak, guztira.

Ondorioak

Ondorio orokorrak

Liburutegiek **aurrez aurreko zerbitzuak** indartu eta **berri-tu** beharko dituzte, **lineako zerbitzuak garatzen dituzten aldi berean**. Biak osagarriak dira, ez baztergarriak.

Teknologia berrietan oinarritutako zerbitzuak eskaintzea, bizitzan zeharreko **prestakuntza** babestea eta **bildumak** eguneratuta izatea, etorkizuneko liburutegien funtsezko alderdiak.

Herritarren eta adituen ustez, liburutegi publikoen zenbait baliok etorkizunerako proiektzioa dute, zerbitzuaren **unibertsaltasunak**, **doakotasunak** eta **tokiko komunitatearekiko** loturak, besteak beste.

Era berean, liburutegi publikoen zerbitzuaren **tokiko izaera** azpimarratu dute, bere alderdi guztietan.

Erabiltzaileek balorazio ona eman diete liburutegiei eta bertako langileei, eta **liburutegia erabiltzea gomendatzeko** eta aktiboki **laguntzeko** prest daude.

Aurrekontu-**murrizketak mehatxu** handia izan litezke liburutegietako giza eta informazio-baliabideentzat.

Etorkizunari aurre egiteko, erakundeen eta profesionalen arteko **lankidetzak** eta **plangintzak** estrategikoa ezinbestekoak dira.



Liburutegien erabileraren inguruan

13 urte edo gehiagoko EAEko biztanleen % 29,4k liburutegietako zerbitzuak gutxienez behin erabili zituzten 2012an. **Liburutegiak erabiltzeko ohitura** oso hedatuta dago nerabe eta gazteen artean, baina zenbat eta zaharragoa izan galdegindako lagunak, orduan eta zaienen adinak gora egin ahala jaisten urriagoa da ohitura hori. Era berean, tamaina erdiko herri eta udalerrietan gehiago erabiltzen dituzte udalerrri txikietan eta EAEko hiru hiriburuetan baino; bestalde, emakumeen erabilera-tasak gizonena gainditzen du.

Liburutegien erabiltzaileak, oro har, arrazoi bat baino gehiago dela-eta joaten dira horietara. Ehuneko handiena lortu dutenak **aisialdi eta denbora librearekin lotutako arrazoiak** dira; ondoren ikastea edo prestatzea datoz, eta hirugarren postuan, gai jakin baten inguruko **informazioa bereganatzeko** beharra.

Liburutegietara joaten direnean, erabiltzaileek zerbitzu bat baino gehiago baliatzen dituzte, bertaratzeko arrazoiak bat bakarra izan bada ere. **Liburuaren mailegua** da, argi eta garbi, erabiltzaile kopuru handiena duen jarduera eta maizen erabiltzen den zerbitzua, eta 35 urtetik aurreragoko erabiltzaileentzat, zeharo gailena da. Bigarren, informazioa bilatzea edo gai zehatz baten inguruko informazioa bereganatzea dugu.

Nerabe, gazte eta heldu gazteentzat, oso garrantzitsua da liburutegia ikasteko gune gisa erabiltzea (beren materialak nahiz liburutegikoak ere baliatuta). Horiek, era berean, liburutegietako gainerako zerbitzuak gehien baliatzen dituzten taldeak dira.

Erabiltzaileen laurdenak baino ez ditu erabiltzen Interneteko **zerbitzuak**, eta batez ere, ohiko zerbitzuekin eta aurrez aurrekoekin lotutakoak izan ohi dira (katalogo-kontsulta, adibidez). Gainerako In-

terneteko zerbitzuak ez daude erabat garatuta eta ez dute garrantzi handirik.

Egun **liburutegietako zerbitzuak erabiltzen ez dituen biztanle**-talde handiaren erdia, gutxi gorabehera, liburutegira joaten zen lehen, eta gainerakoak inoiz ez dira liburutegi batera joan. Azken horien barruan 45 urte edo gehiagoko biztanle ugari daude, baina baita nerabe eta gazteen kopuru nahiko handia ere.

Liburutegietara joaten ez direnen bi herenen ustez, informazio urria jasotzen dute edo ez dute jasotzen beren herriko liburutegian egin lezaketenari buruzko informaziorik. **Informazio-falta** horri informazio edo jakintza desegokia izatea gaineratu diote kontsultatutako adituek, batik bat biztanleriaren sektore batzuek liburutegien inguruan duten irudi zaharkituaren ondorioz.

Liburutegietara zergatik ez diren joaten galdetu diegunean, erabiltzaile ez diren herritar gehienek denborarik edo ohiturarik ez dutela adierazi dute. Baina, era berean, askok beren etxeetan edo bestelako bitartekoak erabilita ikasi, irakurri edo informatzea nahiago dutela aipatu dute. Dena den, adituek uste dute liburutegiak nahiko berandu garatu direla EAEn, beharrezko sustapen eta ikusgarritasunik gabe, eta, horretaz aparte, liburutegi ugari ez daudela biztanleria-sektore askoren egungo interes eta beharretara egokituta.

Liburutegien irudiaren inguruan

Herritarrek **oso ondo baloratzen** dituzte liburutegi publikoak eta horietan lan egiten duten profesionalak. 0tik 10era bitarteko eskalan, erabiltzaileek batez beste 7,7 punturekin baloratu dute zerbitzua, eta sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera diferentziak apenas dira aipagarriak.

Ongien baloratutako alderdiak **instalazioen** koka-pen, erosotasun eta langileen profesionaltasun eta arretari buruzkoak dira. Horietan guztietan, batez bestekoak 8 puntutik gorakoak dira. 7 puntu baino gutxiago jaso duen alderdi bakarra musika eta filmen bilduma da, 6,5, hain zuzen.

Liburutegien erabiltzaileek **iritzi ona dute liburu-zainen** eta gainerako langileen inguruan, bai eta haien profesionaltasun, dedikazio eta ematen duten arretaren inguruan ere. Hala ere, ikerketa honen bidez langileek beren trebakuntza profesiona-

lean dituzten gabeziak identifikatu ahal izan ditugu. Hura sistematikoki hobetu eta eguneratu beharra dago, batik bat teknologia berriei eta zerbitzu eta erabiltzaileen kudeaketari dagokionez.

Adituen aburuz, EAEko liburutegi publikoen **indargune** nagusiak liburutegi-sare zabala izatea (udal-erri eta auzo gehienetan liburutegiak daude) eta langileen inplikazio maila altua dira.

Horiez gainera, adituek hainbat **ahulgune** identifikatu dituzte, adibidez, epe ertain eta luzeko plangintzarik ez duen liburutegi-politika, liburutegien lankidetzak eskasa beste erakunde eta toki-entitateekin, eta liburutegiek gizartean duten proiektzio eskasa.

Liburutegi publikoen ohiko funtzioei dagokienez, datozen urteetan honako hau gertatuko dela uste dute adituek: hezkuntza-funtzioaren garrantzia

areagotu egingo da, informazio-, kultura- eta aisialdi-baliabideak hartzeko eta irakurtzea sustatzeko erakunde gisa liburutegiek duten garrantzia mantendu egingo da, edukiak kontserbatzeko eta hedatzeko erakunde gisa duen pisua murriztu egingo da –toki mailako eta formatu digitaleko edukietan salbu–, eta sozializatzeko eta elkartzeko gune gisa duten garrantzia handitu egingo da.

Liburutegi publikoen **egungo balio** askok **etorkizunerako proiektio** handia dute. Erakundeen alderdirik azpimarragarriena informazioa eta jakintza eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatzen dutela da, euskarria gorabehera eta merkataritza- edo ideologia-irizpideak alde batera utzita. Gainera, herritarrekin konprometitua daude –horiek irakurleak diren aldetik– eta udalerrri barruan, eskaintza kultural eta informatiboa eta prestakun-

tza ez-akademikoa biltzen duten zerbitzu nagusiak dira.

Liburutegiak **herritar guztiei zuzenduta** daude eta hala izaten jarraitu behar du. Horretan bat datoz erabiltzaileak eta erabiltzaile ez direnak, bai eta kontsultatutako adituak ere. Printzipio hori ezarri ostean, askok lehentasuneko zat jotzen dituzte zenbait biztanleria-talde: haurrak eta nerabeak, gizarte-talde ahulenak, adineko pertsonak –horien garrantzi demografikoa handitzen ari da–...

Zerbitzuen etorkizunaren inguruan

Liburutegi publikoen etorkizun-aukerarik handiena liburutegien eta horietan lan egiten duten profesionalen **lankidetzalana** da. Hala ere, lankidetzak zenbait oztopo izan litzakeela azpimarratu dute. Izan ere, sektore profesional batzuek horrekiko errezeloa dute, eta EAEko erakunde-egiturak zailtasunak sortzen ditu.

Krisi ekonomikoak balio berezia ematen die liburutegi publikoak bezalako zerbitzuei, hots, aukera-berdintasuna sustatzen duten horiei. Alabaina, aurrekontu-murrizketek arrisku larrian jar lezake te erakundeon etorkizuna, batez ere giza baliabide eta informazio-baliabideei dagokienez.

Adituen ustez, honako hauek izan behar lukete liburutegi publikoen **helburu lehenetsiak**, garrantzi handienekotik hasita:

- Liburutegietako giza baliabideak hobetzea.
- Liburutegien hezkuntza-zeregina sustatzea.

- Liburutegien irudia hobetzea.
- Liburutegien sarea eta sareko funtzionamendua sendotzea.
- Interneteko zerbitzuak eta horien presentzia indartzea.
- Ekipamendu teknikoa eta teknologikoa hobetzea.
- Liburutegiak kudeatzeko sistemak hobetzea.

Erabiltzaile gehienen iritziz, liburutegietako **oinarriko zerbitzuek doakoak izaten jarraitu behar lukete**. Adituak ere ados daude, eta, horrez gainera, herritarrei esleitutako aurrekontuen erabileraren kontuak emateko beharra agerian utzi dute.

Liburutegiak hobetzeko eta biztanleek horiek gehiago erabiltzea sustatzeko proposamenen artean, «**gaur egungo liburu-eskaintza ona izatea**» da ongien baloratutakoa, erabiltzaileen zein ez di-

renen artean. Ondoren datoz ikus-entzunezkoen eskaintza hobea izatea eta informatika-baliabide hobek edukitzea.

Erabiltzaileen ia bi herenak uste du etorkizunean, liburutegiak **teknologikoagoak izango direla**, baina, era berean, oro har ez du begi onez ikusten aurrez aurreko liburutegiak ixtea lineako liburutegiak edo birtualak sortzeko.

Halaber, kontsultatutako aditu gehienek diote etorkizunean **liburutegiek ekipamendu fisikoa eta eremu birtuala** izango dituztela, Interneteko nahiz aurrez aurreko zerbitzuak, bilduma analogikoak nahiz digitalak.

Irakurketa Publikoko Sareak **liburu elektronikoak eta bestelako eduki** digitalak **linean kontsultatzeko** aukera eman behar du; edukiak modu zentralizatuan eskuratzeko eta legean ezarritako baldintzetan horiek mailegatu eta deskargatzeko plataforma izan behar du.

Liburutegi publikoek lan intelektualerako eta ai-

sialdirako (banaka zein taldean) **eremuak** eduki beharko dituzte. Eremuok malguak eta erabilera anitzekoak izan beharko dute, erabiltzaileen autonomia areagotu eta informazio-euskarrien araberrako eremuen ohiko banaketa gainditu.

Erabiltzaile gehienek diotenez, liburutegi publikoek egun **eskaintzen dituzten zerbitzuetatik** bat ere ez litzateke desagertu behar. Edonola ere, horien iritziz, informazioaren eta komunikazioaren teknologekin lotutako edo horietan oinarritutako zerbitzuen garrantzia handituko da, eta egungo zerbitzu batzuek aldaketak izango dituzte teknologia horien garapena dela bide, adibidez, mailegua.

Bestalde, adituek behin baino gehiagotan esan dute informazio-alfabetatzearekin eta bizitzan zeharreko ikaskuntzarekin lotutako zerbitzuek etorkizunerako **proiektzio** handia izan lezaketela, bai eta irakurtzea eta idaztea sustatzeko jarduerak eta ordenagailu eta bestelako gailuen bidezko aurrez aurreko zerbitzuen eskaintzak ere. Horien aurreikuspenen arabera, erreferentzia- eta

erreprografia-zerbitzuek eraldaketa sakona izango dute, eta aurrez aurreko beste zerbitzu batzuk, berriz, desagertu egingo dira, hemeroteka esaterako.

Liburutegi publikoen **hezkuntza-zereginari** dagokionez, garatu litezkeen ekintza ugari zerrendatzeaz gainera, adituek modu berezian aipatu dituzte erakundeekin, liburutegi-sistemarekin eta profesionalekin lotuta liburutegiek gainditu beharko dituzten oztopoak. Liburutegia hezkuntza-eremu gisa (fisikoa eta birtuala) garatu behar da, eta egungo hezkuntza-sisteman eta prestakuntza-sareetan integratu.

Egungo **Interneteko zerbitzuen** artean, lineako katalogoak aberastea behar-beharrezkotzat jo dute adituek. Edukietara sartzeko kanal bihurtu behar dira, eta erabiltzaileek parte hartzeko bide eman. Horretaz aparte, etorkizunean Internetek garrantzi handia izango du toki eta komunitate mailako informazio-zerbitzuetan, prestakuntzarako laguntza ematen eta liburutegiko izapide edo zerbitzu guztiak kudeatzen. Halaxe mintzatu dira adituak.

Adituek zehaztutako **tresna eta zerbitzu teknologiko eta Internetekoen** artean, honako hauek dira azpimarragarriak:

- Webguneak, liburutegiak eskaintzen edo barne hartzen dituen zerbitzuetara sartzeko atari gisa.
- Sare sozialak eta 2.0 web zerbitzuak, erabiltzaileekin komunikatzeko, edukiak hedatu eta sustatzeko, erabiltzaileen laguntzaz eduki digitalak garatzeko...
- Edukiak kudeatzeko plataformak (literarioak, grafikoak, ikus-entzunezkoak...).
- Lineako prestakuntza-plataformak, tutorialak...
- Edukiak sortzea, batez ere tokiko komunitatearekin lotutakoak.
- Informazioa zabaltzeko eta berriro zabaltzeko zerbitzuak.
- IKT berrikuntzak erabiltzea eta hedatzea.
- Zerbitzuak eskaintzea web mugikorraren bidez.

Etorkizunean, **liburutegi eta erabiltzaileen arteko** komunikazioa eta **harremana** Interneten eta bertan eskainitako zerbitzuetan oinarrituko da, batez ere erabiltzaileenganako arreta zuzena eta pertsonalizatuarekin lotuta dagoen guztian. Dena dela, ezin dugu ondorioztatu erabiltzaileen eta liburutegiaren arteko aurrez aurreko harremana harreman birtualak ordeztuko duela epe motzean edo ertainean. Pentsatzekoa da biak batera gertatuko direla, zein bere esparruan eta bere funtzioekin, edo alternatiba edo osagarri gisa erabiliko direla, pertsonen egoeren eta interesen arabera.

Adituek proposatutako **liburutegi-zerbitzu berrien** artean, argi eta garbi nabarmentzen dira liburu elektronikoak Internet bidez mailegatzeko zerbitzua, informazio-alfabetatzearekin lotutakoak eta bizitzan zeharreko prestakuntza laguntzekoak.

Euskara eta euskal kultura babestu eta hedatzeko funtzioaren kasuan, liburutegi publikoek orain arteko zeregin garrantzitsua betetzen jarraitu behar dute, eta bereziki proaktiboak izan behar

dira zerbitzuak emateko ardurari, bildumak garatzeari eta sarean edukiak sortzeari dagokienez. Hori guztia alde batera utzi gabe immigranteen kulturari eta hizkuntzari eman beharreko arreta, eta kultura unibertsalaren erakusleho izateko xedeari eutsiz.

Udalek zeregin garrantzitsuena dute liburutegi publikoen zerbitzua emateari dagokionez, eta erantzukizun hori behar bezala hartu behar dute beren gain, herritarrentzako oinarritzko zerbitzuei dagokienez duten funtsezko rola onartuta. Aldi berean, beste erakunde batzuekiko lankidetzari sustatu behar dute, eta batik bat, udalerrri txikiek goi erakundeen laguntza jaso behar dute.

Foru-aldundiei dagokienez, ia aditu guztien aburuz, aldundien arteko koordinazioa ezinbestekoa da toki-mailan liburutegi publikoen zerbitzuan lan egiteko. Horren aurka, gehiengoak baztertu egin du horien zeregina foru-liburutegiak mantentzera mugatzen dela defendatzen duen ideia.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, adituek zeregin erabakigarria esleitu diote Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen plangintza egiten, koordinatzen eta horri laguntza ematen. Haren jarduera eta baliabide-esleipena bideratu behar duten lehentasunen artean, bi aipatu dituzte, alde batetik, sailaren liburutegi-zerbitzua sendotzeko beharra, eta, bestetik, sare osoan Interneteko zerbitzuak hobetzeko eta hedatzeko premia.

Erabiltzaileak lehen mailako aktiboak dira EAEko liburutegien etorkizunerako, beren gain hartzeko prest dauden zeregina dela medio. Erabiltzaileen % 95 prest dago beren senide edo lagunei liburutegiak erabiltzea gomendatzeko. Ildo beretik, ehuneko handi bat liburutegiko jardueretan boluntario gisa lan egiteko prest dago, edota liburutegiari laguntzeko edo ikuskatzeko organo batean parte hartzeko ere, halakorik proposatuz gero.

Metodologia

Azterketa hau egiteko bi ikerketa osagarri aurrera eramán ditugu: EAEko biztanleen arteko telefono bidezko inkesta egin dugu, eta aditu-talde bat osatu dugu, zeinean hogeita hamar profesionalak parte hartu baitute. Horrez gainera, gaiaren inguruan Espainian nahiz beste herrialde batzuetan argitaratutako bigarren mailako dokumentazioa eta EAEko liburutegiei buruzko estatistika-informazioa berriro aztertu ditugu.

Herritarrei egindako inkestak telefono bidez aurrera eramán ziren, CATI sistema baliatuta. Lagin adierazgarria gisa, bestalde, 13 urte eta gehiagoko EAEko 2.050 biztanle hartu genituen. Laginean sexuaren, adinaren eta bizilekuaren taimainaren kuotak ezarri ziren, eta bi azpitaldetan banatu: liburutegien erabiltzaileei 1.050 inkesta egin zitzaizkien, eta beste 1.000 inkesta, berriz, erabiltzaile ez ziren herritarrei. Erabiltzailetzat azken urtean edozein zerbitzu erabiltzeko liburutegira gutxienez behin joan den pertsona jo zen.

Laginaren banaketa			
		LAGINA	% bertikalak
Sexua	Gizonak	1.019	49,7
	Emakumeak	1.031	50,3
Adina	13 eta 16 urte bitartekoa	180	8,8
	17 eta 24 urte bitartekoa	455	22,2
	25 eta 34 urte bitartekoa	430	21
	35 eta 44 urte bitartekoa	480	23,4
	45 urte eta gehiagokoa	505	24,6
Tamaina	3.000 biztanletik beherakoa	410	20
	3.000 eta 20.000 biztanle bitartekoa	480	23,4
	20.000 biztanletik gorakoa	480	23,4
	Hiriburuak	680	33,2
Erabiltzaileak	Erabiltzaileak	1.050	51,2
	Erabiltzaile ez direnak	1.000	48,8
Lagina, guztira		2.050	100

Oinarria: 13 urte eta gehiagoko EAEko biztanleak.

Galdetegi erdiegituratu bat erabili genuen: atal batean bi azpitaldeei egingo zitzaizkien galderak zeuden, eta bestean, talde bakoitzarentzako bera-riazko galdera-multzoak. Galdetegia osatzeko, kul-tura- eta irakurtze-ohitura eta -kontsumoari buruz EAEn egindako bestelako ikerketak aintzat hartu ditugu, eta adierazleak alderatzeko modukoak izat-en saiatu gara, ahal den neurrian. Izan ere, lor-tutako emaitzei esker egiaztatu dugu koherentzia-maila handia dagoela gure ikerketaren eta azken urteotan edo duela gutxi EAEn edo Espainian egin-dakoen artean, adierazleak bat datozen kasuetan, noski.

Aurreazterketa bat egin ostean, 2012ko irailaren 24tik urriaren 22ra bitartean gauzatu genuen inkes-ta. Haren emaitzak haztatu egin dira, talde bakoit-zak EAEko biztanlerian duen proportzioarekin bat datorren irudikapena lortze aldera.

Aldi berean, **aditu-talde** bat eratu eta 42 profe-sional gonbidatu genituen. Horietatik 30 profesio-nalek parte hartu zuten. Profesionalen bi herenak liburutegien esparrukoak dira, eta gainerakoak,

hezkuntza edo kultura-kudeaketaren alorrekoak. Aditu-taldeko galdetegiak garatzeko Delphi meto-dologia erabili dugu, bai eta inkestak egiteko web-plataforma bat ere.

Lehen galdetegia erabat irekia izan zen, eta 2012ko uztailaren 30etik irailaren 18ra bitartean bete zuten. Erantzunak laburbildu eta terminologia edo kontzeptuak bateratu ostean, erantzun batzuk behin betikotzat jo genituen. Beste batzuk, aldiz, bigarren galdetegi egituratu bat osatzeko oinarri gisa hartu ziren. Bigarren galdetegian, parte-har-tzaileek laburpenetatik abiatuta guk garatutako baieztapenekin zenbateraino ados zeuden adierazi behar zuten. Hura 2012ko urriaren 24tik azaroaren 12ra bitartean bete zuten.

Honako hauek parte hartu dute aditu-taldean:

- Patricia Acebes, Udal Liburutegia, Laudio (Araba)
- Teresa Agirreazaldegia, Euskal Herriko Uniber-tsitatea, Leioa (Bizkaia)
- Eva Alberdi Zubiaurre, Juan San Martin Udal Li-burutegia, Eibar (Gipuzkoa)

- Txabi Arnal, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz (Araba)
- Jone Arroita Jauregi, Galtzagorri Elkarte, Donostia (Gipuzkoa)
- José María Barandiarán, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko aholkulari ohia eta irakurketa eta liburuen sektoreko aholkularia, Bilbo (Bizkaia)
- Iñaki Ceberio, Udal Liburutegia, Irun (Gipuzkoa)
- Lorena Fernández, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo (Bizkaia)
- Amaia García, Bookhunterblog, Donostia (Gipuzkoa)
- Javier Garrido, Ibai Sistemas, Vitoria-Gasteiz (Araba)
- José Ángel Gómez, Udal Liburutegia, Eltziego (Araba)
- Roberto Gómez de la Iglesia, c2+i / Conexiones improbables, Vitoria-Gasteiz (Araba)
- Ibon Idoiaga, Udal Liburutegia, Leioa (Bizkaia)
- Esperanza Iñurrieta, Arabako campuseko Liburutegi Nagusia, Vitoria-Gasteiz (Araba)
- Fernando Juárez, Udal Liburutegia, Muskiz (Bizkaia)
- Francisco Javier Lopez Landatxe, Koldo Mitxelena kulturunea, Donostia (Gipuzkoa) Koldo Mitxelena kulturunea, Donostia (Gipuzkoa)
- Miguel Loza, Berritzegune Nagusia, Bilbao (Bizkaia)
- Arantza Mariskal, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroko Mediateka, Donostia (Gipuzkoa)
- Ramón Martín, ALDEE, Donostia (Gipuzkoa)

- Alasne Martín Goikoetxea, Alhóndiga Bilbaoko BBK mediateka, Bilbo (Bizkaia)
- Mertxe Perez de Ciriza, Udal Liburutegia, Arrasate (Gipuzkoa)
- Francisca Pulgar, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua, Vitoria-Gasteiz (Araba)
- Anabel Regalado, Udal Liburutegiak, Getxo (Bizkaia)
- Ramón Salaberria, liburuzaina eta idazlea, Mexiko
- Francisco Javier Santano Pardo, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz (Araba)
- Txutxi Solar, Programa ACEX Bizkaia, Bilbao (Bizkaia)
- Enrique Uriarte, Ignacio Aldecoa Kultura Etxea Vitoria-Gasteizko Liburutegi Publikoa, Vitoria-Gasteiz (Araba)
- Arantza Urkia, Udal Liburutegien Sarea, Donostia (Gipuzkoa)
- Txaro Valverde, Eusko Legebiltzarreko liburutegia, Vitoria-Gasteiz (Araba)
- Obdulia Vélez, Mondragon Unibertsitateko Biblioteka, Arrasate (Gipuzkoa)

Argitalpen honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitalpena:

1.goa, 2014ko martxo

© Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa
Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Inkesta:

Ikertalde Grupo Consultor, S.A.

Aditu-talde:

Azterketa eta Ikerketen saila, Fundación Germán Sánchez Ruipérez

Zuzendaritza eta Koordinazioa:

Hilario Hernández, Fundación Germán Sánchez Ruipérez

Diseinua eta maketazioa:

Olga Sánchez Pérez

Internet:

www.euskadi.net

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz